



ANTONIO ZAVALA

AMERIKETAKO
BERTSOAK

AMERIKETAKO BERTSOAK

Auspoa Liburutegia

176

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa Maria, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

AMERIKETAKO BERTSOAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

1984

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)
Fotokonposatzaile: Lente – Estella
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-120-5
Depósito Legal: NA. 1.129 -1984

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Bertso Berriak: «Milla zortizireun berrogei ta bian...»	15
Agur! «Triste daukat anima, biyotza minduba...»	23
Bertso Berriak español euskaldun batek jarriak: «Milla zortizireun da berrogei ta amaseyan...»	31
Bertso Berriak: Bertso berri batzuek ditut aterako...»	41
Bertso Berriak: »Zenbait mirabe gazte ezaguera gabe...»	47
Euskal-Erriari agur: «Agur maitagarrizko Euskaldun-Erria...»	53
Ilbeltzaren zortziko biagia: «Bertso berri batzuek nai nituzke para...»	57
Bertso Berriak Pikaruai jarriak: «Pensatu det bertsuak ipiñtzen astia...»	67
Nere aurrai: «Zer diozu aspaldian, Joxe Gregorio	77

Bertso Berriak California'ko mendian ardizaiñ batek jarriak: «Bertso berri nai nituzkez jarri...»	79
Bertso Berriak Jose Iriarte'k jarriak: «Orain artu det pensamentuba bertso berriak jartzeko...»	89
Motriku'tik Australia'ra: «Milla urte ta bederatzireun ogei ta zazpigarre- na...»	103
Bertso Berriak: «Arjentina'tik Espa- ñi'raño nai nuke nik adierazi...» .	109
Orra Bertso Berriak batek bertzeai jarriak	115
«Bertsoak jartzen noia entreteni- duaz...»	123
Bertso Berriak Ipar Amerikan dauden Urbia'ko artzaiak jarriak: «La- guntza eskatzen diogu Arantza- zu'ko Ama maiteari...»	127
Ameriketako artzaiei erantzuna: Artzai mutillak artu nai ditut nik gaur nere besuan...»	133
Bertso Berriak Azkue eta Agirre'tar lñakik jarriak: «Nere illoba mai- tagarriya, zuri begira naukazu...»	139
Habana'ra joan nintzan arditikan gabe...»	145

ITZAURREA

Benetako euskalduna izateko, Ameriketan osabaren bat eduki bear omen da.

Egi-egia esan zuan ori asmatu zuanak. Alegia, geiegizko jendea joan zala emendik itxas arunzko lurralde aietara.

Atzera etortzeko asmoak eramango zizuzten aietan geienak edo guztiak. Bañan usteak ustel aterako zitzaizkien geientxuenei.

Euskaljerri txiki ontan danentzat lekurik ez eta batzuek beren lurra ustu egin bear ko zutela, dudarik ez da. Bañan era gabe ko alde egin bear ura neurriz kanpoko a izan zala ere, ez du iñork ukatuko.

El Eco de San Sebastián egunkariak, 1883'eko Abuztuaren 13'an, onela zion:

«Se ha autorizado al Poder Ejecutivo de la República Argentina para contratar la inmigración de 10.000 vascongados como mí-

nimum, y de 15.000 como máximo, en el término de cuatro años...

El gobierno pagará diez pesos nacionales por cada inmigrante adulto, y cinco por cada niño mayor de doce años y menor de diez y seis».

Berri ori, Buenos Aires eta Montevideo'ko egunkarietatik jaso zuan.

Urrengo batean, urte bereko Iraillaren 24'an, onela zion egunkari orrek berak:

«... la república del Uruguay, la Argentina y Chile han acordado promover la inmigración fijando su mira en los colonos euskaros y habiendo determinado contratar entre todos unos 25 o 30.000 emigrantes vasconavarros».

Jende-biltzalleak ere bazebiltzan gure probintzi auetan. Oiei, erderaz, *enganchadores* edo *ganchos* esaten zitzaien.

Jende-biltzalle edo engañatzalle oien aurka gogotsu asi zan *El Eco de San Sebastián* ori. Makiña bat idazlan atera zituan gai ontaz egun batzutan. Onela zion bein da berriro:

«Vaya cada cual donde quiera, pero no vaya infamemente engañado».

Bañan egunkari ori erderaz izanik eta euskaldun jendea argitu ta jakiñaren gañean jarri nairik, orri berezi bat atera zuan euskeraz, *Erne euskaldunak* izenarekin.

Orri ori argitara atera zanean, onela esan zuan *Euskal-Erria* aldizkariak:

«En dicha hoja, destinada a abrir los ojos a nuestras pobres gentes del campo, y que a este fin viene repartiendo profusamente nuestro colega entre los Ayuntamientos y párrocos de Guipúzcoa, se da cuenta de la suerte que ha cabido y la protesta elevada por los emigrantes en el vapor Patagonia, de que se ha ocupado casi toda la prensa, y se dan sanos consejos a nuestros aldeanos, para que no se dejen engañar por ganchos sin conciencia, que tratan de explotarlos miserablemente».

Ikusten denez, garai artan ere baziran, beren negozioa egin ezkeru, lagun urkoaren ondamendiagatik bost ajola zitzaienak.

Patagonia izeneko ontzi ori Burdeos'tik irten zan, Chile'ra pasa nai zuten irureun lagun zeramazkiala.

Bañan auek, Montevideo'ra irixtean, engañatuta zijoazela jakin zuten. Basamortu batera ta indio tartera bota nai ziztuztela, alegia.

Orduan, itxas-ontzitik jetxi ta bertan gelditu ziran erdiak baño geiago.

Berri orrek, itxasoaren onuzko aldera iritxi zanean, etzuan izpide gutxi jarri bazterretan, bai Euskalerrian ta bai Españi guztian ere.

Gustora eskeñiko genituan emen *Erne*

euskaldunak izeneko orriaren zati batzuk bederen. Ez degu, ordea, iñun arkitu. Donosti'ko udaletxeko liburutegian *El Eco de San Sebastián* egunkari ori an dago txukun asko enkuadernatuta, bañan orri ori falta duala.

Eskari au egiten du ondoren *Euskal-Erria* aldizkariak:

«Creemos que tan útil propaganda sería completa y fructuosa si nuestra Diputación destinara una pequeña suma, o utilizara su imprenta, para la publicación de versos en bascuence, escritos ad hoc, y entregados gratuitamente a los ciegos que se dedican a esta industria, que se encargarían de hacerlos llegar al último caserío, pues sabida es la afición que en nuestras clases populares existe a esta clase de trabajos».

Aitormen ederra da au, gure iritzirako, bertsolaritzaren indarrari buruz. Bertso-paperak euskaldunen artean zeñen eragin aundia zuten azaltzen digu. Orregatik, artaz baliatu bear zan Ameriketara joan bear ura gelditzeko.

Asmo on ori Diputazioak aintzat artu ote zuan ez dakigu.

Bañan bestela ere Ameriketarako joe-rak gure artean bertso asko sortu araziko zituala, edozeñek errex pentsa zezakean.

Auspoa'k baditu olako sail batzuk orain baño len argitaratuak. Baita ere Amerike-

tara joandako zenbait bertsolarien berriak emanak.¹

Bertso oiek danak, argi egiten diote, guk uste, euskaldunen Ameriketara joan bearraren kondairari. Liburu ontako bertsoak ere ortan laguntza egingo dute.

Eta kontuan artu bear da, iru bertsolari aundi auek ere Ameriketara ibilliak ditugula: Iparragirre, Mendiage ta Pedro María Otaño.

Oraingo liburu ontan bildu ditugun bertso-saillak, geientxuenak egillearen izenik gabeak dira. Eta bat edo beste bada egille ezaguna duana, sail bakarra-edo eman zuana degu.

Bañan Bidasoa'z ego aldeko bertsoak dira danak. Ipar aldeko bertsolarietak beste baterako utzi ditugu.

Australia'tik bialdutako sail bat ere bagenduan eta liburu ontan sartu degu, orrentzako lekurik egokiena bera zala uste izanik.

Liburu ontan bearko zuten sail asko betiko galduak izango dira, noski. Adibidez, Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman, bertso bakar au arkitu degu, seguru asko lagunak izango zituana:

¹ Ikus: *Auspoa*, 1, 32, 33, 56, 66, 73, 74-75, 77-78, 109-110, 114, 120-121-122, 123-124-125, 161, 163.

Bi gazte guaz gaur gu
Buenos Aires'era,
ango urre pixarrak
onuntz ekartzera;
ori aditu eta
poztutzen ez zera,
aberastuta berriz
laster emen gera.

Ala ere, bildu diranak mordo ederra
osatzen dute eta konten egon gindezke.

Pasai'tik irten giñan
San Migel bezperan...

Ola esaten du liburu ontako sail batek.
Itxura danez, itxas-ontzi asko ortik irten zi-
ran, Ameriketako bidea artzeko. Pedro Ma-
ria Otaño ere Pasai'tik atera zan, Argenti-
na'ra joateko.

Gipuzkoa'ko itxas-erri ori izan zan, be-
raz, ainbat euskaldunek azkenik ikusi zu-
ten euskal lurra. Orregatik, Pasai'ko ar-
gazki batez baliatu gera liburu onen azala
apaintzeko.

Besterik gabe, esku artean duan libu-
rua irakurriz une atsegingarria igaro dezan
opa diogu irakurleari.

(1842)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Milla zortzireun da ¹
berrogei ta bian,
penak esplikátzera
orain naiz abian;
bi milla eta geiago
legoa bidian,
gu saldu gaituena
onela tranpian
ez dago sarturikan
zeruko glorian.
- 2/ Abisatzen zaituztet,
nere gurasoak,
parteakin batean
gure lengusoak,
nola saldu gaituzten
traidore falsoak,
urrikaltzeko dira guk
egindako pausoak,
ez anparatzekotan
Jaun amorosoak.

¹ *da* ori guk erantsia da.

- 3/ Rivas komandante,
Matias kapitan,
orra zer moduz asi
diran Ameriketan;
oiek saldu gaituzte
betiko dirutan,
berriz eldu badira
pasajerotan,
abisatzen zaituztet
illtzeko bertan.
- 4/ Semeak dituzten amak
Jesusi erregu,
onera gabetanik
egon giñazkean gu;
etorkizunen berri
jakin izan banu,
nere aita ekusteko
Patriaren soldadu,
penaz akabatzeko
batek aski al du.
- 5/ Aberastu nai badu
iñork Indietan,
konsejatzen zaituztet
bein ta bi biderretan;
lanik aski badaukat
alderdiaren faltan,
nerea deus ez da
aiek daude penetan,
irurogei urteko
gizona armetan.

- 6/ Nere aitak munduan
zerbait ekusten du,
zartzean Amerikan
fortuna egin du;
esklaboak bezala
betiko soldadu,
Matias atzindarik
nola duen saldu,
penaz akabatzeko
batek aski al du.
- 7/ Arbizu'ko semea
sarjento primero,
Andres nonbratzen dana,
Uriz apellido;
ark egin zuan bein
batez alto ligero,
inozementean
bera preso gero,
traidoreak ordena:
«Jaun orri lau tiro.»
- 8/ Preso zigutenean
sarjentoa eraman,
lau tiro nai ziozkaten
bereala eman;
aditu zutenean,
mutillak koleran:
ill bear zituztela
nagusiak bertan,
sarjento primeroa
ez libratzekotan.

- 9/ Amak dolorez azita
semeen galera,
bederatzi bertsoan
orra aditzera;
pruebak eman dituen
nere aita bera,
nor bere etxean bego
asi gabe onera,
esklabo serbitzeko
gerok aski gera.
- 10/ Kanta triste oientzat
au da errematea,
nai duenak sinistu
gure suertea;
iñork ez erruki nai
español maitea,
urrian saltzea ere
zer borondatea,
Montevideo dago
traidorez betea.
- 11/ Idorrera baño len
egiñik tratuak,
betiko esklabo
giñala salduak,
nonbait asko zor due
gure pekatuak,
anpara gaitzala
Gurutze Santuak,
gutaz egon ditezen
besteak eskarmentatuak.

Bertso auek, asieran diotenez, 1842 urtean jarriak dira. Garai artan, Uruguay bere buruaren jabe egin berria zan. Bañan pakea andik oso urruti zebillen. Bertakoak beren artean gerran jarraitzen zuten, Arjentina, Brasil, Frantzia eta Ingalaterra'k ere parte artzen zutela. Argibide au gogoan artu bear da, bertsoak ulertuko badira.

Oiartzun'go Manuel Lekuona'ren bilduman arkitu ditugu, eskuz idatzita, bertako Sein Irigoyen etxeko paperetan azalduta.

* * *

Donosti'ko Jose Manterola zanaren bilduman ere agertu dira bertso auek, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batean eta aldaketa auekin:

Izenburua: Verso Berriac el año 40 Montevideora engañatuta eramanac jarryac: 1/1: Milla zortzireun da; 1/3: berac esplicatzera; 1/7: gu saldu gaitustenac; 1/9: es daude sarturican; 2/4: gueroi lengusubak; 2/7: erruquitzezo dira; 2/8: emengo pausuac; 3/1: Reivas comandantia; 3/4: diran American; 3/8: pasage orretan; 3/10: iltzeko or bertan; 4/1: Guraso seme dunac; 4/4: egon quintesquen gu; 4/7: nere aita Garcia; 4/8: Patrian soldadu; 4/10: batec asco aldu; 5/2: iñoc Indietan; 5/4: beñ da bi alditan; 5/5: lanik asko badaukat; 5/6: aldiazzen faltan; 5/7: nerea deuscala; 5/8: pena bacarrican; 6/2: cerbait icusten du; 6/3: sartsera American; 6/5: esklavuac becela; 6/7: Montevideotarrac; 6/8: nola duten saldu; 6/10: batec asco aldu; 7/4: Urritz apellido; 7/5: eguin suben bein batez; 7/6: an alto ligero; 8/3: lau tiro nai zizcaten;

9/1: Ama Dolores entzun; 9/5: prueba ta ejemploa; 9/7: bere echian bego; 9/10: gueroc asco guera; 10/1: Canta triste abetzas; 10/2: au errematea; 10/5: iñork es icusi nai; 10/7: urretan salduzeco; 11/3: betico gu esclavo; 11/5: numbait asco sor dute; 11/7: amparatu gaitzala; 11/9: gutzas egonditecen; 11/10: escarmentatubac

Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanak, berak bere eskuz idatzitako bilduman, sail ontako bederatzi bertso ditu: 1, 2, 3, 5, 6, 7, 8, 11 eta 9'garrena, orden orretan. Falta diranak: 4 eta 10'garrena.

Aldaketak: 1/1: Milla zortzireun da; 1/7: Montevideotikan; 1/8: Euskaldun errira; 1/9: ongi engañatuta; 1/10: ekarriak gera; 2/3: bestiakin batian; 2/8: emengo pausuak; 3/4: diran Amerikan; 3/7: berriz pasatzen badira; 3/8: paraje orretan; 3/10: iltzeko or bertan; 5/1: errez Indietan; 5/4: bein da bi alditan; 5/6: aldiaren faltan; 5/7: neria asko ez dala; 5/8: nere aldetikan; 5/10: gizona bestetikan; 6/2: zerbait ikusi du; 6/3: aizkenian Amerikan; 6/5: esklaboak bezela; 6/7: Montevideotarrak; 6/8: nola duten saldu; 6/9: penak akabatzeke; 6/10: au bastante al du; 7/3: Andres nombratzen da ta; 7/5: gau batez egin zuan; 7/6: ark alto lijero; 8/1: Agindu zutenian; 8/3: lau tiro nai zizkaten; 9/1: Ama dolorezkua; 9/2: seme oien galera; 9/3: beatzi bertsoetan; 9/4: orra despedira; 9/5: prueba ta ejemplua; 9/7: bego bere etxian; 9/9: esklabuak serbitzeko; 9/10: gerok asko gera; 11/1: Agorra bañon lenago; 11/3: nunbait asko zor dute; 11/4: gure pekatuak; 11/5: anparatu gaitzala; 11/6: Jaun amoro-suak; 11/7: gu saldu gaituztenak; 11/8: onela tranpiyan; 11/9: ez daude sarturikan; 11/10: zeruko gloriyan.

Aitzol zanaren bilduman Irun'en jaio ta Plazentzia'n bizi zan Andres Ezenaro *Urzelai*'k 1932 urtean bialduta, sail ontako 5 eta 7'garren bertsoak. Bostgarrena beste onela:

Lanera etorrita
gabiltza gerretan,
gorriyak ikusiyaz
Montevideo ontan;
neria ez da ezer
nere aitaren plantan,
irurogei urteko
gizona armetan.

Ta 7'garrenaren aldaketak: 7/1: Larraulko semia;
7/3: Andres nonbratzen zana; 7/4: Urreta apellido;
7/5: bein batian ein zuben; 7/6: ark alto ligero.

(1855)

AGUR!

1/ Triste daukat anima,
biyotza miñduba,
borondate argal au
agitz nagituba;
esperantza ez det izan
beñere urrituba,
fedia iñoz baño
gaur aundiyagua!

2/ Amerikara nua,
euskaldun gaztia,
lutekiyan largarik
nai dedan guztiya;
zerubak agintzen dit
gaur emen uztia,
agin dezakeana
bigar biurtzia.

3/ Munduban badabiltza
ni bezela milla,
laukiya dan proгатzen
edo biribilla;
zarrian aspertuta
berriyaren billa,
batian jo Erroma,
bestian Antilla.

4/ Bidaje luze obek,
dutenez esaten,
irakarten digube
munduban bizitzen;
bizimoduba zer dan
aisa dakigu len,
Habana'n sopra dana
ez balitz falta emen.

5/ Itxaso zabaleko
bagaren artian,
ikusiko naiz laster
ol baten gañian,
tximista ortik-emendik
eskaitz illunian,
luma ariña bezela
noiz goian, noiz bian.

- 6/ Onela da munduba,
beti izan da onela,
iñolaz ere aurrera
onela izango da;
jaiuak badakigu
non jaio giñaden,
non ill bearko degun
ez orain eta ez len.
- 7/ Zer dan oartzen bada
gure bidagoa,
orobat da legorra
nola itxasoa;
iñon ere ez da falta
erori-jasoa,
guztiyaren gañetik
dago Jaungoikoa.
- 8/ Ni urrutira juan arren,
illtzen ez bagera,
bilduko gera oraindik
gure bazterrera;
ametsak narabilde
atzera eta aurrera,
San Antongo menditik
Zarautzko ondarrera.

- 9/ Zarautz izanagatik
nere jatorriya,
leial zauzkat goguan
beti, Ketariya;
zu gure noizbaiteko
deserri atsegiña,
nere aitonen humoi
donekargarriya.
- 10/ Gaztetako oroipenak,
agur!, banua ni
berriyak eskatzera
etorkizunari;
zer billatzera nuan
iñortxok ez daki,
baña zer galtzen dedan,
ai!, gaidetu neri...!
- 11/ Adiyo, ketariar
eder doatsuba,
maitagarriya bezin
pontzel maitatuba;
Jaunak aditzen badu
nere erreguba,
izango zera beti
zorionekua.

12/ Adiyó, euskal erri
odol garbikoak,
agur, baserri alai ta
saroi gereitsubak,
mendi tantaiak eta
zelai loretsubak,
biyotz nereko lagun
beti-betikoak.

Jose Manterola: *Cancionero Vasco, Primera serie, Tomo segundo.*

Bertso-papera, *Imprenta y Librería de Elosu - Durango* moldiztegián argitara emaná, Oxford'ko *Bodleian Library'n*.

Biak berdín-berdín daude. Orregatik, guk uste, bigarrengoak lendabizikoari kopiátu díó.

Manterola'k argibide jakingarri asko ematen dízkigu bertso-sail oni buruz:

«La poesía Agur, que creo inédita, y de la que muy pocos, si alguno, tendrán noticia, fue adquirida por extraña casualidad en Madrid, y en 1855, por el señor D. Francisco Manuel de Egaña, que juzgándola digna de la publicidad la tradujo en prosa castellana, y que no habiendo visto la luz entonces por causas que no son del caso, ha tenido la bondad de facilitármela para el Cancionero Vasco.

Agur es una tierna despedida al país de un vascongado que marcha a américa...

«...Escritas las precedentes líneas, y en los momentos en que iba a darlas a las cajas, recibo una atenta comunicación de D. Francisco Manuel de Egaña, que ha venido a causarme una verdadera y agradable sorpresa.

En ella el Sr. Egaña, que había tenido la bondad de facilitarme la composición Agur, y de cuyas cartas había entresacado las noticias que he dado acerca de su origen, levantando el velo del anónimo bajo el que se encubría, se declara autor de esta bellísima poesía, acompañando pruebas que así lo demuestran.

...Sabía que este ilustrado jurisconsulto era muy aficionado al estudio de la literatura, y muy perito en ella; tenía noticia de que había escrito diversas composiciones en lengua castellana, pero ignoraba en absoluto que se hubiera ejercitado jamás en el cultivo de la poesía euskara.

En la misma última carta de que hago mención, el Sr. Egaña, acompaña las siguientes noticias acerca del origen de esta composición, noticias cuya reproducción en este lugar no juzgo ociosa:

«Debí a la excelente voluntad del respetable señor D. Claudio Antón de Luzuriaga, que siendo él Ministro de Ultramar, y hallándome yo cesante por consecuencia de la revolución del 54, me nombrara a principios de 1855 Teniente Fiscal de la Audiencia

*pretorial de la Habana. Próximo ya a embarcarme, (lo cual no tuvo efecto por un acto exclusivo de mi voluntad), una bella e ilustre señorita de Guetaria, en casa de cuyos nobilísimos padres hacía yo tertulia, me pidió que escribiera alguna cosa en vascuence para su **Album**, y el 18 de febrero de 1855 la envié el **Agur**, mi primer ensayo en el idioma nativo. Esta es su historia.»*

Réstame para terminar esta líneas felicitar muy de veras al Sr. Egaña, como a poeta vascongado, pues es hallazgo de valía el de un vate de su importancia, aquí donde, por desgracia, son tan pocos los que se dedican al cultivo de las Musas.»

Egaña jaunak, irakurlea oartuko zanez, itz asko Larramendi'ren itzegitik-edo artu ditu. Manterola'k oien esan-naiak ondoren ematen ditu. Guk ere egingo degu; bañan ez arek bezin luze:

Luteyika: *continente, tierra firme*; laukiya: *cuadro*; eskaitza: *tempestad*; bidagoa: *peregrinación*; deserri: *destierro*; humoi: *cuna*; donekargarria: *digna de veneración*; pontzela: *joven, doncella*; saroi: *prado*; gereitsubak: *sombríos, frondosos*; tantaiak: *titánicas*.

(1856)

BERTSO BERRIAK
ESPAÑOL EUSKALDUN BATEK JARRIAK

1/ Milla zortzireun da
berrogei ta amaseyan,
askok pensatu degu
juatia ontziyan;
Martxuaren amaikan
irten gera Pasayan,
orduho suzesoak
nua esan nayan.

2/ Dn. Nikolas Soraluze'k
deseo zukian
jendia bialtzia
bapore batian;
txarra atera zaio
lenengo suertian,
arren zai egon gera
sei illebetian.

3/ Jendea luzepenaz
kejatu da agitz,
belero bat billatzia
pensatu da berriz;
Burdeos'tik ekarri
du fragata *Luis*,
obe zan lenengotik
au ekarri balitz!

4/ Eujenio Melendez
gure gubernuban,
Soraluze'k jarriya
au bere lekuban;
ondo ibilli balitz
pena ez genduan,
esango det prueba
nola eman duan.

5/ Abiyatu giñaden
animoz da pozik,
izango etzalako
orrelako gauzik;
ez genduan espero
gobiernu ona baizik,
bigarren egunian
ura eman nai ezik.

6/ Armoni gaiztua
asi du jendiak,
nola gizonak eta
igual andriak:
«Ainbeste pagatu eta
onela juan biar!»
Iñork ezin mudatu
aren kostunbriak.

7/ Dn. Nikolas jaun orrek,
barkuban sartzian,
ordenako paperak
zabaldu bai ziran,
gure errazioak
nola biar ziran,
pasajero guztiyak
orren eske ziran.

8/ Jose Migel Altube'k
kargu egin zuban:
ia bulla arekin
zer falta genduban;
orduban jarri giñan
aren gobernuban,
Melendez baño ere
naiago genduban.

- 9/ Merezi baño geiago
nai ez det famatu:
gosiak ez du geroz
jendia penatu;
gauza ekusiak ez du
zertan informatu,
Altube'k ondo daki
nola gobernatu.
- 10/ Guztiyok badakigu,
nai badegu esan,
uraz gusto aundirik
ez degula izan;
gizon ori barkuban
ezpagendu izan,
gauza onik gurekin
ikusiko etzan.
- 11/ Melendez ori dago
beti erriertan:
asko gastatzen dala
modu orietan;
eduki nai ginduzke
jendia dietan,
zori gaiztoz jarriya
gure begietan.

12/ Gizon onek ez digu
ezer opa guri,
ain gutxi derizkiot
bere buruari;
bizar artian ez du
musurik agiri,
korputz guztian ez du
libra bi aragi.

13/ Asi ziran biberez
kargatzen fragata,
beriala aspertu
naikua zala-ta;
aitu zan aragia,
igual patata,
jendia larri giñan
zer jana falta-ta.

14/ Bakallau eta sardiñ
makiña bat zuan,
usteldu ta botiak
dira itxasuan;
oliyuak aituta
manteka auzuan,
dendatik ekartzera
iñork nai ez juan.

12/ Bibere oien karguban
zan Lizarriturri,
ondo zekialako
itxasoko berri;
deskuiduan ere
geiegi ez du jarri,
arribatu artian
izan gera larri.

16/ Amabost egun bada
aitu zitzaizkigula,
geroztik or gabiltza
al degun bezela;
goizian da arratsian
baratzuri-salda,
eguardirako zerbait
luzituko al da.

17/ Miseriak gauza onik
ez dakar gogora,
bibereak eskastuta
famili gogorra;
aize gaiztuen beldur
giñaden gerora,
larri iritxi giñan
Montevideo'ra.

18/ Dn. Nikolasengana
aserreak gaude,
manifestatu bear det
sentimentu au ere;
abereak bezela
onenbeste jende
bigaldu gaituala
kapellaurik gabe.

19/ Bagenkien barkuban
apaiza bazana,¹
nork pensatuko zuban
kapellau etzana?
Bagenkien preziso
konbeniko zana,
gero jakindu degu
artako etzana.

20/ Ez bagendu izandu
okasiorik,
ez genduan jakingo
oien mintziorik;
debalde nekatzeko
nork du deseorik?
Ez du pasajeroak
obligaziorik.

¹ Esku-idatziak: *bazala*. Bañan bagenkien aurrean *bazana* bear du, irugarren puntuan dagoan bezela. Eta punturako ere ala komeni da.

21/ Bi milla ta eun errial
dauka pagatua,
guk bezela, azpian
daraman barkua;
onela pagatuta
bere trabajua,
gure serbizioan
ez da obligatua.

22/ Dn. Ermenejildo Eizegi
apaiz ori degu,
Ermo'ko semea da,
badakit seguru;
eman dualarikan
orrenbeste diru,
arrek bere leialtadez
asistitu digu.

23/ Don Nikolas jaun ori
nola ibilli da?
Ikasi nai duanak
obrari begira;
kapellau bat barkuban
beti konbeni da,
animaliyak orrela
bialdutzen dira.

24/ Jaungoikuak grazia
eman ezpaligu,
Dn. Nikolasengatik
galdubak giñan gu;
abereak bezela
ginduen bialdu,
kontuba orrek oraindik
lan eman bear du.

25/ Baldin sententzi ori
balegoke nigan,
erakutsiko nioke
biar dan legian,
bi milla eta geiago
legua birian,
personak zer modutan
bialdutzen diran.

26/ Oi ta sei bertsoekin
orra despeditu,
geiegi esatera
ez naiz estenditu;
motibua duanak
beza entenditu,
barkazio eske nago
badet ofenditu.

Bertso auek Aita Donosti zanaren artxi-
botik ditugu, eskuz idatzitako orri batetik.

(1869)

BERTSO BERRIAK

1/ Bertso berri batzuek,
ditut aterako,
Apaiztegi jaunaren
barku ontarako,
zeren badaukazkigun
motiborik asko,
jendeak pasatu du
miseria franko.

2/ Kantatu naiagatik
gogoan non dago?
Atzo indar gitxi ta
egun gitxiago;
zutik eziñ egonik
jende asko dago,
ezurak jasotzeko
nai ainbat lan dago.

- 3/ Pasadizoak ongi
deklaratzeko,
abantea baneuka
esplikatzeko;
indarrak juan eta
memoria flako,
kartzelakoen gisa
sufritu bearko.
- 4/ Barkurako jendea
biltzen duenean,
agintzeak aundiak
beren mingañean;
indarrak eziñ egiñ
uraren gañean,
jendea martxatu da
miseri aundian.
- 5/ Gizakumeak ere
nai ainbat lanekiñ,
galtzak eziñ eduki
gerriñ ubalakiñ;
jikara bana baba
galleta urdiñakiñ,
nor egon bizirikan
orien janakiñ?

6/ Pasaia'n irten eta
egun gutxi barrun,
zorriak an zebiltzen
ontzien ingurun;
gutxienaz bagiñen
bosteun bat lagun,
orra zer gobernu
Apaiztegi'ñ barkun.

7/ Nafar-eria ere
sartu zan barkura,
orduan artu zuen
jendeak tristura;
iru il ziran eta
artu ta putzura,
eriotza zor degu
jaioak mundura.

8/ Iru lagun il ziran,
beste zazpi eri,
Abe Maria bezela
egia da ori;
biotzetik eskatu
Birjiña Amari,
erremedio oberik
ez da emen agiri.

- 9/ Kuartillu bana ardo
zuten agindue,
pozik erango gendun
eman baligue;
bere itzen erdirik
kunplitu ez due,
barku ontako jendea
joan da saldue.
- 10/ Emengo miseriak
ongi agertzeko,
eun ta larogei bertso
ez lirake asko;
bañan bastante dira
entendituzeko,
poliki asi giñan
barku ontarako.
- 11/ Bagendun txokolate,
kafe ta azukrea,
premian estaltzeko
nezesidadea;
egiten utzi nai ez,
miseri tristea!
Lagun zaiguzu arren,
Birjiña maitea.

12/ Kozineroa gendun
ona ta leiala,
bizirik egoteko
bagendun bearra;
berak jan ta eran egiñ,
besteari farra,
frantzes bizar gorria
dana giza txarra.

13/ Koziñero ori da
txit gizon prestua,
barku ontako jendeak
dauka ezagutua:
alarguna omen da,
edadez zartua,
iru arroa ez da,
dana txalkortua.

14/ Koziñeroak badu
bertso oien premia,
aspaldian ez dago
gutxi merezia;
pasajeroai burla
nai duan guzia,
baioneta dirudi
dana puzunia.

15/ Goizean gosaltzean
sardiñ ustel zarra,
biotza animatzeko
ez da gauza txarra;
barkuan sartutzean
bagendun indarra,
erdia balego oraiñ
ez litzake txarra.

16/ Mikaela Zarranak
kantuak paratu,
barren ontako jendeak
naute enkargatu;
afizioa izan da
nik eziñ faltatu,
orra amasei bertso
nai duenak kantatu.

Bertso-papera, *Donostian: Ignacio Ramon Baroja-ren echean* argitara emana eta Paris'ko Liburutegi Nazionalean arkitua. Paperaren beeko barrenean, eskuz idatzi-ta: 1869 Aout. Urte artakoak dirala adierazi naiko du. Egillearen izena amaseigarren bertsoak esaten digu: Mikaela Zarrana.

Entzun izan degunez, emakumezko au Betelu'koa zan, eta Ozkoz'ko Erdabide bertsolariarekin bein batean kantatua. Betelu'ko eliz-artxiboan saioa egiñak gera, bañan alperrik gure egiñala: ez degu emakume onen aztarrenik arkitu.

BERTSO BERRIAK

1/ Zenbait mirabe gazte
ezaguera gabe
gurasuen ondotik
irtentzen dirade,
esanaz: «Amerikan,
dudarikan gabe,
emen baño obeto
biziko gerade».

2/ Amets ori egin da
mirabe gaztiak
eunka juaten dira
utzirik guztiak;
nonbait aberastia
dituzte ustiak,
orra zer anparua
guraso tristiak.

- 3/ Aruntz allegatu ta
anparorikan ez,
beren amets guzia
irtenik alrebes;
beren buruak galdu
bizi-modu txarrez,
bueltatatu naiagatik
andik ez da errez.
- 4/ Postura orretan bizi
dira Ameriketan,
mantenduko badira
guztizko penetan;
gaitzik bada anparua
dute hospitaletan,
ogeitatu amasei
iltzen dira bertan.
- 5/ Ez dezute ikusten
zuben begiak
zenbat juaten diraden
fortunen pozakin?
Eundik bat etortzen
bada zerbaitekin,
beste geienak bertan
ill dira gaitzakin.

- 6/ Bi milla ta geiago
legua birian
dijuaz barkuetan
berentzat kaltian;
aruntz allegatu ta
iñoren mendian
gelditutzen dirade
despreziyo bian.
- 7/ Utzirik aita ta amen
kariño gozuak,
dijuaz pasatzera
tratu penosuak;
esperantzetan bizi
dira gurasuak,
alibiyo ederra
ez dute gaxuak.
- 8/ Orra aitak eta amak
beren aurrak azi,
laguntzeko denboran
dijuaz igasi;
kanpora juañ baño len
pensatu lenbizi,
zer modutan diraden
Amerikan bizi.

- 9/ Gurasoak gauza bat
aritu biar du:
ez dezala kanpora
alabik bialdu;
asko jua dir baño
txit gutxi azaldu,
lana egin dezala
etxian al badu.
- 10/ Beren etxetan ondo
dirare aziyak,
garbitasun onian
Jaunari graziyak;
utzirik gurasuak
eta lagun guziyak,
pasatzera dijuaz
ango desgraziyak.
- 11/ Zenbait komisionatu
dirade ibiltzen,
aruntz eramateko
neskatxak billatzen;
itz leun batzuekin
dituzte engañatzen,
orra zer moduetan
diran abek galtzen.

12/ Orra itz onarekin
tristiak engaña,
falso oiek artako
daukate mingaña;
juan diranak etorri
nai luteke baña,
ezin sobratu dute
biajientzat aña.

13/ Euskalerrriyan danak
gera ezagunak,
anai-arrebak eta
gañera lagunak;
utzi alde batera
ango ondasunak,
geiago balio du
emengo osasunak.

14/ Amets oiek ez artu
sekulan buruan,
batek obe du bizi
toki seguruan;
osasun ona eta
lagunak onduan,
lur au baño oberik
eztago munduan.

15/ Orra ara jua eta
zer gertatuzen dan:
emen alegriya ta
tristeza franko an;
obe da egiya ezpada
arto puska bat jan,
ez an biziya uztera
Euskalerritik jua.

16/ Aide txarra ta gaitza
dago Amerikan,
emen osasun ona,
falta ez lanikan.
Zertara jua inora
Euskalerritikan?
Abek dira Amerikak,
non da oberikan?

Donostia'ko Jose Manterola zanaren bertso-bildumatik artuak ditugu bertso auek, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik. Beeko barrenean izen au agertzen da: *Juan Jose Arrieta*. Bertsoen egillea izango da. Bañan bertsolari orri buruz ez degu orain arte ezer ere ikasi.

Manterola'ren bilduma ori, 1877 urtera-ko osatu zan. Beranduena urte ortakoak, beraz, bertso auek.

EUSKAL-ERRIARI AGUR

Agur maitagarrizko
Euskaldun-Erria,
len zorionekoa,
gaur errukaria.

- 1/ Zure mendi biribill
politen artean,
artu nuen arnasa
mundura agertzean;
zure gaztaña, sagar
ta intxaur-ostopean
jolas egiñ oi nuen
aurtxo nintzanean.
- 2/ Antxume jolasgure
dan baten antzera,
saltoka ta lasterka
batetik bestera,
zure bidetxigorrak
gora eta bera
igotzen nituen nik
goizetik gauera.

- 3/ Leku maitatu oek
utzirik gaurdandik,
igesi banoa ni
itxasoz emendik;
ala ere biotza
zuga det oraindik,
nai arren ez nezake
aldendu zugandik.
- 4/ Zure txit antziñako
euskera gozoa
da nik amatxogandik
ikasitakoa,
izkuntza guzietan
paregabekoa,
noizbait leku askotan
itz egindakoa.
- 5/ Antziñako euskaldun
leial ta nobleak,
zeñetatik ginduzen
fuero ta legeak,
Euskal-Erriarentzat
ezin-da obeak,
orain kentzen dizkigu
Gaztelar jendeak.

6/ Gure mendi eta aitzak
etzuten ikusi
arrotzik egundaño
berentzat nagusi;
Euskal-Erria beti
libre oi zan bizi,
ai gure zorigaitzak
dira orain asi!

7/ Euskal-Erriko zelai,
baso ta mendiak,
aditu oi zituzten
kantu pozgarriak;
orain penaz beterik
gure alderdiak,
lutoz jantzita daude
kanpo ta erriak.

8/ Agur biotzetikan
aide ta lagunak,
agur adiskideak
eta ezagunak;
eman ditzazutela
beti gure Jaunak
konbeni daneraño
pake ta osasunak.

9/ Biotzaren erdiko
amatxo maitea,
mingarri da neretzat
zu emen uztea;
Jaunak gordeko nau ta
konsola zaitea,
Berak naiko du nik zu
berriz ikustea.

Bertso auek, *Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran, IX'garren alean, 44 orri-aldean, 1883 urtean, argibide onekin:

«Moldaera eder au paratu zuen apaiz errespetotsu batek, azkeneko gudaren akabaeran, mundu berrira juateko Euskal-Erriari agurrak egiñaz; zeña baita itzuli bere ama zarraren ondora, modu onetan kunplituaz bere asmegi edo etorkizunaren berria.»

ILBELTZAREN ZORTZIKO BIAJIA

1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke para,
aditu nai duanik
iñor baldin bada;
legorrez aspertuta
itxasoetara,
irureun lagun guaz
Montevideo'ra.

2/ Deklaratu nai nuke
dakidan euskaran,
Pasai'tik irten giñan
San Migel bezperan;
jendiari aditzera
nai nioke eman
kanpo zabal oietan
nola bizi geran.

- 3/ Ilbeltzaren zortziyan
señalamente zan,
geren buruz etsita
txit estu gebiltzan;
denborale txarrakin
alako tristezan,
sokorritu naiagatik
auzorikan etzan.
- 4/ Barku sinple batian
onenbeste lagun,
ez dakit zer biaje
atera biagun;
kubiertan legorrik ez,
bodegan txit illun,
guretzako gauza onik
etzeguan iñun.
- 5/ Horizonte onetan
sartu giñanean,
aizerik ez genduben
zortzi egunean;
jendia aspertu zan
geldi egonean,
eguzkiyak erretzen
kubierta gañean.

6/ Berrogei egunean
linean igaro,
txit aize gustokuak
jo ginduzen gero;
gure Jaungoikuagandik
degula espero,
ondo allegatuko
gera onezkero.

7/ Gizon konsejerua
genduben Juanes,
beñere kontenturik
ez digu eman janez;
guk eskatubagatik
ark guri eman ez,
diruba bazan baña
bentarik iñun ez.

8/ Barku simple onetan
irureun persona,
txoruak sinistatu
falsuen esana;
beti abundoso da
urrutiko sona,
jan geiegik ez digu
galdu osasuna.

- 9/ Bakallo usaiduna,
ustela sardiña,
urdaia're zeguan
ill zanian fiña;
ura ere ez naikua,
dena arrak egiña,
urruti botatzen zun
usaia zikiña.
- 10/ Frantzia'tikan urre
Manis Donostiya'n,
arrek engañatuta
joan giñan ontziyan;
bera parako nuke
nik nere tokiyan,
ez dezan engañatu
iñor probintziyan.
- 11/ Orra bertso berriak
barkutikan jarri,
aditzera emateko
mundu guztiyari;
abisatzen diotet
bati eta biri,
abitua damutu
zaiola amaikari.

12/ Orra amabi bertsoak
egiak kantatu,
gauza pasatakuak
nai ditut kontatu;
iñork jakin nai badu
zer zaigun gertatu,
orra paperak eta
txanpon banan artu.

Bertso-papera, *E. Perez. San Sebastian* moldiztegian argitara emana eta Errenteri'-ko Jertrudis Arrieta Urdanpilleta zanaren eskutik jaso.

Guk eskuratu degun argitaraldirik zaarena bera dala, ortografiatik agiri da. *Verso, batzuek, nituzque, guiñan* eta abar Urrengo paperak, berriz, *berso, batzuek, nituzke* eta *giñan*.

Paper au, moldiztegiaren utsegitez-edo, illun samar dago bi tokitan. Onela dio: 3/7: sicorrian naya gatic; eta 12/3: gruza pasatacuac. Oiek urrengo bertso-paperari begiratuta zuzendu ditugu.

Bertso-papera, *Imp. R. Altuna.- San Sebastián* moldiztegian argitaratua eta Tolosa'ko Manuel Urreta zanaren eskutik jaso. Aldaketarik ez du.

Bertso auek oso ezagunak izan dira Gipuzkoa'n beintzat. Doñua ere kuadrillan kantatzeko oso egokia da. Bañan, oi da-


nez, aldatu egiten da toki batetik bestera. Ona orain emen guk jaso ditugun aldaerak.

Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno batean, eskuz idatzita:





Irura'ko Inazio Arregi'ren aotik jasota:





* * *

Azpeiti'ko Joxe Mari Garmendia'ren aotik:





* * *

Laugarrengo au ez nuan idatzi noren
aotik jaso nuan:





(1901)

BERTSO BERRIAK
PIKARUAI JARRIAK

- 1/ Pensatu det bertsuak
ipiñtzen astia,
au da bi espetorren
ejenplo tristia.
Esniari orlako
sisa erastia,
berak pagatu gabe,
lan da sinistia,
eskarramentatuko da
bat edo bestia.

- 2/ Milla ta beratzi-reun da
lenbiziko urtian,
sisa berri bat bat bada
gu geran partian.
Nik dakit oikatik zer
esango nukian,
lanian ez-tigue
utzi nai pakian,
artu naian dabil-tza
danak ankapan.

- 3/ Lenago pagatubak
ditut bi patente:
bat karruarentzako,
bestia anbulante.
Irugarrena sisa
dala mediante,
oiri guziyai batek
egitian frente,
norber'ezta gelditzen
diruz baliente.
- 4/ Lenago ezin giñan
jantzi ta mantendu,
t'orain sisarentzako
bosna peso kendu.
Gu ezkintezke ondo
orrela konpondu,
bidegabea dela
askok esaten du,
Gobernubak ori
gaizki egiten du.
- 5/ Bostak desiatzen du
ezpagendu sisik,
negonek ere ala
nahi nuke kasik.
Pobria probetxatzen
daude ondo ikasik,
orreatikan dira
oriyen pantesik:
beak bestek izaterik
eztu nahi sosik.

6/ Nik ez neukan oientzat
orlako apunterik,
ezpalute ipiñi
berak motiborik.
Pobriak irabazten
du asko penaturik,
oik ez dute ateratzen
orlako konturik,
konzienzia txarreko
gizonak di orik.

7/ Sisa guk pagatzeko
ipiñi zuenak,
badakit etzirala
sujeto zuzenak.
Beti berentzat gorde
mokarurik gozuenak,
besteri kenduta jan
al bada gauz onak,
merezi eztu grazirik
orlako gizonak.

8/ Sisa kobratzen
persegidoriak,
arrapatuko ditu
dabiltzan biriak.
Baliyo balin badu
nere poderiak,
jendiak jakingo'itu
ausento guriak,
ipernun izango dira
oriek baiño obiak.

- 9/ Orai espektor oiek
dabiltz indarrían,
nola goizian ala
iñulabarrian.
Gaizki egiten du
ondo biarrían,
berak kontrabanduan
gustu ederrian,
ori d'ikusizuna
Jaunaren aurrian.
- 10/ Eiten du espektorrak
pekatu ederrik,
seguru dakiyala
artuko'iztet neorrik.
Auk dirala meriyo
dira lege berrik,
allegatuko zaizte
igualdi igorrik,
orain ezpadute're
iñoren beldurrik.
- 11/ Emen izan eztedin
geroko disputik,
al dezakenak jua
obe du bistatik.
Aprobetxatu naia
oik mundu guztitik,
sisa pagatzen ari
naz gogo gaiztotik,
eskapatziagatik
oien ankazpitik.

- 12/ Au da espektor oien
oraingo afana,
zalapartan or datoz
letxeruengana.
Bolsillutik atera
tenaza txar bana,
papera guri kendu
len berak emana,
ola zulatzen d'oien ¹
ill guziko lana.
- 13/ Ezpada oientzako
juez justurikan,
emen ezta faltako
gauza gaiztorikan.
Pobriaren artian
ezta gustorikan,
izan ere badago
orden esturikan,
eztute ikusi nai
beak besterikan.
- 14/ Zeñek nun ikusi du
orrelako gauzik?
Eztet uste dela nion
oientzat juezik.
Jendia probetxatzen
ari dira pozik,
gugatik esan d'egin
nai dituzten guzik,
oriyen din eztira
gure irabazik.

¹ Bertso-paperak: *ola zulatzen doien*.

- 15/ Zer kastigu dan ori
nai nituzke abisa,
zergatik bosna peso
para duen sisa.
Egun guzitan bada
esne-errebisa,
atajatzten gaituzte
lapurraren gisa,
oikin ondo bizitzen
ezt'izango aisa.
- 16/ Jaungoikoak baditu
kastigu fuertiak,
ezpadio laguntzen
bati subertiak.
Espetor sisero
pekatuz betiak,
indarrik baldin badu
etsaien katiak,
an pagatuko'ituzute
emengo partiak.
- 17/ Tokatu da dotriñ au
nik apuntatzia,
esperatzen det sano
banaiz kantatzia.
Asko kostatzen d'emen
adelantatzia,
obia dela uste det
sis ori kentzia,
bestela ezta posible
iñor mantentzia.

- 18/ Kontentu eztir'izango
nik au esatian:
nai t'ez erori biar
dute azotian.
Bire gabe kobratzen
zer gizonak tian!
Lotzen zaituztenian
etsaiak katian,
ezta atsegin izango
egunen batian.
- 19/ Orain da barkatzeko
komentziya,
nai dunak garbi euki
bere konzienziya.
Ni esaten ari naiz
nere iritziya,
Jainkoak artuko du
apunte guziya,
andik irakurriko
digu sentenziya.
- 20/ Sisa parako zuen
zerbait palt'izanik,
ez nuben uste ori
egingo zuenik.
Bada kuadrill'ortan
sujeto zuzenik,
onena gaizto asko
esango dizut nik,
ezpada konzienzi
obeko gizonik.

- 21/ Txangu (b) ori gogotik
dabil errebisian,
nolako gizona dan
biaizuet esan:
Benganzagatik asko
artuko du kausan,
erregalua eske
tokatz'eztan gisan,
bestela esnea tira
naiz purua izan.
- 22/ Errebisazalle bat
txanguba soziyo,
pasazitzen du zenbait
desesperaziyo,
itz-pat esan orduko
berak despreziyo;
berriz egiten badu
oimeste traiziyo,
egunen bat gaziya
tokatuko zayo.
- 23/ Gizon oien obrari
begira naiz jarri,
nola portatzen diran
esango det sarri.
Bat portunatatzen da
eskutik elbarri,
Jainkoak kastigu (b) au
emana da orri,
ori dabil letxero
guziyen galgarri.

24/ Ejenplo bat zabaldu
det sisa-kontuban,
oimestetxe sustanzi
daukat talentuban.
Gizon oin ibellerak
esanaz kantuban,
gezurrik eztet jarri
batere espantuban,
ogei ta lau bertso
dira bost puntuban.

Ogei ta lau bertso auek, izenburu orrekin, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik ditugu. Bañan Ameriketako gertae-ra da eta bertan inprentatuak izango dira. Ixaak Lopez-Mendizabal zanak bialdu zizkigun Buenos Aires'tik, 1959 urtean.

Bertsolariaren izenik ez da esaten. Darabilen euskerari begiratuta, Gipuzkoa'ko Beterri aldekoa dala esango genduke. Bañan Bidasoa'z beste aldeko euskeraz pixka bat kutsatzen asia da. Ameriketari askotxori gertatzen zitzaiona, beraz.

Arjentina'n-edo *letxero* ari da; esnezale edo esne-banatzalle, alegia. Bañan esneari sisa berriren bat erantsi diote eta ez dago gure gizona oso gustora...

NERE AURRAI

Zer diozu aspaldian,
Joxe Gregorio?
Bizentek zuen berri
aitari eman dio...

Ezin bialdu dizuet
nai aña amorio.
Alkar maite izatea
ezta misterio.

Agintzeak bakarrik
eztu emen balio.
Pedro Marik len bezela
jarraitzeko dio.

Agur, nere alaba,
eztakit noiz arte...
Etzaitut nik aztuko
bizi naizen arte...

Euskal-Erritik emen
nago ni aparte.
Andik ona badira
leguak bitarte!

Nere emaztea ta aurrak
beti ditut maite.
Etzait biotza pozten
zu ikusi arte.

Pedro M. Imaz
Buenos Aires, Enero 1°, 1908.

Bertso auek, firma erri-izen eta eguna-
rekin, *Aranzazu* aldizkarian agertu ziran,
1943 urteko iraillean, aurretik argibide
auek zituala:

«Los guipuzcoanos desde América
continúan honrando a la Virgen de Arán-
zazu como patrona suya. Y por medio de
Aránzazu quieren comunicarse con sus
parientes, como nuestro bienhechor Don
Pedro M. de Imaz que nos envía estos ver-
sos dedicados a sus hijos en Buenos Ai-
res hace varios años».

(1911)

BERTSO BERRIAK
CALIFORNIA'KO MENDIAN
ARDIZAIN BATEK JARRIAK

1/ Bertso berri batzuak
nai nitukez jarri,
pastore tristiaren
eskermentugarri;
mendi altu onetan
gutziz nago larri,
geure pasadizua
esan gabe garbi.

2/ Neu naz pastoria ta
neuk dakit onduen
geure pasadizoa
nola dan munduen;
ia bada, jendiak,
aditu kantuen,
emen kanteko dot nik
al dodan moduen. ¹

¹ Bertso-paperak onela ditu bertso ontan puntuak: *onduen*, *munduan*, *cantuan* eta *moduan*. Bañan lenengo puntua *onduen* izanik, besteen bukaera ere *uen* bear du noski eta ala idatzi degu.

3/ Bakarta andiagaz
neguko otzetan
egon biarko degu
mendi mortuetan;
personian sonbria
illian birritan
ikusiko bagendu
gagoz gu pentsetan.

4/ Ogei urte oin dira
ni jaio nitzala,
gaztia izen arren
eginda neu zarra;
gorputzian badaukat
ulia ta bizarra,
berbetan aztutia
izango da txarra.

5/ Gure bizi-modua
bere modukua,
ezin konparau leike
motxaila pillua;
koltxilla zar pare bat
olana orrututa,
auxe izaten degu
gure lo-lekua.

6/ Goizian goiz jagita
ancuac agudoac,
balio izate biar
dabe zaintzeko
kunplitu gura duenak
bai geure legiak,
gaberako eitten jakuz
orpuan babiak.

7/ Gosia tripan eta
bai anka-jokua,
ezin konparatu leike
geugaz kamellua;
tentera juateko
geure kontentua,
zetan ete daguan
indar lapikua.

8/ Edurra eta euria
afrontu guztiak
pasatu biar ditu
gure espaldiak;
kapa bat erosteko
gagoz aspaldian,
errira joateko
gagoz urrunian.

9/ Uda partia bada,
arbola tartian
koltxilla bat botata
lo lurren ganian,
izarra telletutzat,
edurre danian,
pastoriak egon biar du
olango lanian.

10/ Otsua eta gukarra
alkate basauntza,
eta alboko arbolan
santzoka gabontza;
pastore gizajuak
lurrian lo otza,
esan lei nai duela
eman eriotza.

11/ Indarra ta arroza,
zentenua ogi,
orixe izaten da
bai gure janari;
bastimentu eskasa
gutziz da bai ori,
pozu geldiko ura
ganera edari.

12/ Milla bederatzireun eta
amaikagarren urtian,
Kristo jatxi zanetik
ona bitartian,
irillian ogeta bederatzian
dauz jarrita San Migelen egunian,
ondo egongo dira ipinita
inprentau dan egunian.

Bertso-papera, *Guernica - Imp. Angel de Goitia* moldiztegian argitara emana, Aita Donosti zanaren artxibotik.

* * *

Bertso auen esanaia illun xamar egingo zaio, zenbait aldiz, bizkaitarra ez danari. Guri, beintzat, ala egiten zitzaigun. Orregatik, Bermeo'ra joan giñan, Abel Muniategi adiskidearengana; eta arek emandako argibideak, emen ezarriko ditugu:

3/1: Bakarta andiagaz: bakardade andiagaz. Neurriagatik-edo, itza laburtua.

4/4: neu: nau, nago.

5/6: olana orrututa: lona urrututa, urrututa.

5/7: Bertso-paperak: aise. Guk *auxe* idatzi degu. Bañan baditeke *axe* izatea ere.

6/1-4: Lerro auek, or goien bezela ditu bertso-paperak ere. Bañan gaizki idatzita daudela dudarik ez da. 6/2: *ankak agudoak*

bear duala ematen du. Bañan punturako ez dator ondo. Eta 16/4, onela bearko luke bearbada: *balio idaten dabe zaintzeko ardiak*.

6/7: Bertso-paperak: *gaberaco eintzen ya cu*.

7/5: tente: *tienda de campaña*.

7/8: indar: indiar, indiar-baba, babarro-na.

8/3: Bertso-paperak: *pisatu*.

10/1: Bertso-paperak *guzarra* zion, moldiztegiaren utsegitez-edo. *Gukarra*, erderaz *jaguar* esaten zaion pizti gaiztoa omen da. Ipar-Amerikan ibillitako Gernika aldeko artzaiak ala deitzen omen diote. Kalifornia aldean asko omen da ta ardie-tan kalte aundiak egiten ditu. Bein zauritu ezkerro, oso txarra ta arrisku aundikoa da. Orregatik, ura iltzera zazpi gizonetik beera ateratzea debekatuta omen zegoan. Gutxienez, zazpikote bat bear zan, alkarri laguntza egiteko.

12/8: Ziur asko, *inprentau diranian, inprentetan diranian* edo olako zerbait bearko luke.

* * *

Bertso auetako batzuk, *Aranzazu* aldizkarian, 1971 urteko abenduan, agertu ziran: 1, 4, 5, 7, 11 eta 10'garrenaren erdia.

Alboan, argibide auek:

«Martin Idoyaga eta Nikolasa Olaeta, senar-emazteak, Bizkaiko Ibarrangeluan bizi direnak, joan den abuztuko 16an beren ezkontzako urre eztaiak ospatu zituzten.

Liebanako Santo Toribion ospatu ere. Mixiolari eta fraidetan dituzten seme-alabekin batean, etxeko jai bero samurrean.

Jaialdi ederra izan zen. Meza eta bazkaria.

Martin gaztetan Ipar-Amerikan artzain ibilia da.

Eta bazkal ostean an ikasitako bertso hauek kantatu zizkigun. Egile ezezagun batenak dira, noski. Hango euskal artzainaren bizimodu latza kontatzen dizkigute.

Zorionak gure Euskalerrri zaharreko kristautasun sendoaren ispilu den familia honi! L. V.».

Doñua ere ematen digu. Onako au:





* * *

Bañan bertsoak aldaketaz josiak, *Aranzazu* aldizkarian. Onela diote:

Mendi altu onetan
gutziz nago larri
neure pasadizue
esan gabe garbi
neu naz pastorie ta
neuk dakit onduen

geure bizimodue
nola dan munduen

Ogei urte orain da
neu jaio nitzala
gazia izanarren
eginda nago zarra
gorputzian badeuzkat
ulia ta bizarra
berbetan aztutie
izango da txarra.

Geure bizimodue
bere moduena
ezin konparau leike
motxaila pillue
koltxilla txar pare bat
eta olan urratua:
horixe izaten dogu
geure lo lekue.

Tentire joateko
geure kontentue
zetan ete daguan
inddar lapikue
aixie ta eurie
afrontu guztie
pixatu biarko dituz
gure espaldiek.

Uda partien bada
arbola tartian
koltxilla bat botata
lo lurren ganiien
ixarrak teillatuten
elurra danian
pastoriek egon bier deu
olango lanien.

Indarra ta arroza
zentenu ogi
orixe izaten degu
bai gure jana
bastimentue eskasa
gutziz da bai ori
pozu geldiko ura
gaiñera edari.

Otsua ta gusarra
alkate basauntza
eta alboko arboletan
zantzoka gabontza...

BERTSO BERRIAK
JOSE IRIARTE'K JARRIAK

- 1/ Orain artu det pensamentuba
bertso berriak jartzeko,
ni jaio nitzan erriko jende
guziak akordatzeko;
idearikan artutzen badet
atzera bueltatutzeko,
fabore aundirik apenas daukat
iñori pagatutzeko.

- 2/ Sueldo batekin atera nitzan,
ondo badaki erriak,
izardi aundirik atera etziraten
neri diruan kargiak;
arriturikan gelditzen ziran
bidian jende guziak,
diru gutxikin ikasi ditut
Amerikako berriak.

- 3/ Eskerrik asko bateronbatek
nêtzako trena debalde,
enpeñatuta logratu zuben
fondako Migel Igalde'k;
aberastera suertako banitz
asko bezela uste gabe,
ondo pagatuba izango luke
kunplimenturikan gabe.
- 4/ Trena debalde banuben baño
manejatu biar zan jateko,
esaten nuben: «Dirurik ez det
fondarik pagatutzeko».
«Zer eingo degu?» entzuten nuben,
eta maian jartzeko,
jan da ondoren soñu piska bat
gitarrarekin jotzeko.
- 5/ Nere barruko pena geienak
juan ziran ori aitzian,
kafiak artu, kopak eranaz,
umore eder bat jartzian;
erozein gauza, jaunak, ikasi
sekulan ez da lotsia,
oraingo buelt'ontan baliyatu zait
neri gitarra jotzia.

6/ Maiatzeko illan ogei ta lauban
sartu giñan baporian,
jende-kuadrilla galanta zegon
Burdeos'eko muellian;
denak ojuka ta eskubak joka
segitzeko umorian,
familliako batzuk bezela
martxatu giñan bidian.

7/ Lenengo jana eman ziguten
patata zuitu gabiak,
ogiya berriz ikazturikan,
erre gaberik erdian;
bizkaitar batzuk esan ziraten:
«Betoz gure konpañian»,
arrantxu ori nik ez jateko
aik bazutela obia.

8/ Bapore dana sublebatu zan
uniturikan jendiak,
kapitanari esan zioten
aik etzirala txerriak;
ondramentian pagau zutela
eta egiteko jan obiak,
bestela urera juango zirala
ango katxarro guziak.

- 9/ Kapitan orrek modu onarekin
jendia aplakatzeko:
denbora gutxi izan zutela,
beingua barkatuzeko;
kozineruari enkargau zion
jendia kontentu eukitzeko,
urraingo obia izango zala
eta erretiratzeko.
- 10/ Andik aurrera etzan izandu
kejarik jende tartian,
soñuba jota guziak dantza
kapitanaren aurrian;
ari're nunbait askoi bezela
gustatzen zaio bromia,
nere ustetan kapitan ori
izan biar du noblia.
- 11/ Bota bat nuben fisti batena
neri Galbete'k emana,
ura ikusita erreparuan
gelditu zan kapitana;
eskutan artuta ari begira
ezin eman zion plana,
nik neure baitan: «Ondo pensatzen
artu dezu naiko lana».

12/ Estrañaturik galdetu ziran
iya zena zen botia,
nik erantzun nion: «Ori da, jauna,
basakatuen dotia».
Txokau zitzaion neure errespuesta
orrela kontestatzia,
bodega junda barrikatikan
ekarri zuen betia.

13/ Len adiskide asko, gero geiago
bazan neure inguruan,
«danok botatik eran biar degu,
ez apuratu gure onduan»;
jende oberik ezta posible
arkitutzia munduan,
soñua jotzen atera giñan
Buenos Aires'ko portuan.

14/ Zenbait karro ta gañera kotxe
gure espero baziran,
oteletara eramaiteko
porfian ibilli ziran;
karretero batek sartu ninduban
karro batera segidan,
ango kaletan bazan jendia
gure soñubai begira.

15/ Otel batera eman ninduten
dirijiturik karrua,
moneda gutxi emanagatik
eraman nuen garbua;
adiskide batek bela esan ziran:
«Neure gain zure kargua».
eta erozeiñek pagatzen zuban
eraten nuben ardua:

16/ Gaurko eguneko gizalegian
zeguban diferentzia,
Buenos Aires'ko otel batian
artu det esperentzia;
persona batek ezautu gabe
bazuben borondatia:
«Tori dirua, berrogei peso,
pagaturikan fondia».

17/ Buenos Aires'en esan ziraten
kanpora ez abiatzeko,
jende gaiztua zegubela ta
batere ez fiatutzeko;
nik berriz lendik pensaturikan
naiz ifarnura sartzeko,
konseju oiek aritu arren
ez nengon kobardatzeko.

- 18/ Indiotara etorri nitzan
arturik neure fedia,
bidian esanaz nere burubari:
«Eztek izango egiya;
fijatu zaitez erreparuan
gaurko munduko legia,
batzuk izanda beste batzuek
eamaten dute famia».
- 19/ Makiña bat gauza mundu onetan
mintzatutzen du jendiak,
papeletaztik badakizagu
mundu guziko berriak;
ez da oberik presentazia
bakoitzak bere begiyak,
orduban klaro jakiten dira
gezurrak eta egiyak.
- 20/ Bertsu oriye errematian
Alsasu danai gorentzi,
neure partetik orko jendia
osasunarekin bizi;
iruki arren ondo egoteko
makiña bat komenentzi,
emen geatzia bueltatu gabe
guaindik ez diot ereitzi.

Bertso auek paperetan agertu zituan
Imp. R. Altuna. S. S. moldiztegiak.

Paper oietako bat, Ormaiztegi'n jaso nuan, bertako Etxaburu baserriko Bixente Mujika adiskidearen eskutik.

Gure *Bosquejo de Historia del Bertsolarismo* (Donostia, 1964) liburuan, Amerikara joandako euskaldunen bertsoak aitzazera-koan, Jose Iriarte orren biajearen berri ematen genduan.

1976'ko Martxoaren 26'an Altsasu'ko adiskide baten eskutitza artu nuan: liburuan irakurria zuala Iriarte'ren aitamena, «*personaje muy popular y todavía no olvidado en su pueblo*», eta bertso oiek pozik artuko zituala.

Ala, kopia bat bialdu nion.

Andik illabete batzutara, Irailleko Gurutze Santuaren egunean, Altsasu'ko erriko festak izaki; eta programan *El bersolarismo en Alsasua* izeneko idazlan bat agertu zan, Jose Iriarte'ren bizitzaren berri eman ez. Enrike Zelaia soñu-jotzalle eza-guna, lan orren egillea. Onela dio:

«En Alsasua, un bersolari cuya personalidad se hizo popular en toda la comarca fue José Ramón Iriarte Zufiaurre, conocido por el sobrenombre de «Thotho». La figura de Joshé, que nace el 9 de marzo de 1864, llega hasta nuestros días como protagonista de infinidad de historias. Iriarte, acompaña-

do siempre de su guitarra, ponía de manifiesto su brillante condición de bersolari unas veces entre amigos, otras reuniendo a toda la gente del barrio, o amenizando bautizos, comuniones y bodas. ¡Que «gozada» sería escuchar hoy a nuestro paisano, en su mejor momento de inspiración, improvisando versos alusivos con una «chispa» y gracia fuera de lo común!

Cuentan que la Maijesús, dueña de la Casa Aldasoro (antigua taska alsasuarra), en cierta ocasión no le quería servir nada a Thotho por razón de tener una deuda pendiente. (Eran los tiempos en que no se encontraba una peseta en toda la casa y la mayoría de alsasuarra ponían la mano debajo de la gallina esperando que cayese el huevo para poder cambiarlo en la taberna por vino). Insistió Joshé en que le sirvieran el trago, presentando una moneda encima del mostrador y prometiendo saldar el total de la cuenta. Accedió Maijesús a sus deseos ofreciéndole un «cuartillo» de vino. Entre trago y trago, Thotho iba desgranando sus versos, siempre acompañado de su guitarra, ante el regocijo de los presentes y la propia dueña, que hasta olvidó recoger la moneda del mostrador.

Terminado el vino y tras una buena tanda de versos, se dio cuenta Joshé que seguía la moneda en el mismo lugar donde anteriormente la había depositado. La recogió y

El urdiaintarra, aprovechando una serie de combates que hizo al otro lado del océano, quiso conocer alguno de los característicos «ranchos», quedando profundamente sorprendido cuando a la entrada de uno de ellos se encontró con un letrero que decía: Altsasuko Thotho. Gitarra jotzailia.

Volvió el año 1926, pero con más inspiración que fortuna. Por lo que siguió su vida bohemia, terminando sus días en Etxarri-Aranaz, donde murió el 23 de abril de 1929. Con él desapareció todo un compendio del arte poético popular.

A José Iriarte el pueblo de Alsasua le atribuyó muchas cosas, cuando en realidad fue nuestro primer gran bersolari, el gran humorista y guasón con quien la posteridad haya cometido quizás la injusticia de considerarlo así como algo que fue: un gran arlotte, un bohemio. (Como lo fue el padre de los bersolaris conocidos Fernando Amezquetarra, incluso el extraordinario poeta Iparraquirre y muchísimas figuras más de la poesía popular). Pero a Thotho sólo se le consideró como eso, cuando en realidad y de hecho debió ser un hombre pobre en dinero, eso sí, pero rico en aspectos. Muy ameno, muy apreciado y sobre todo con una personalidad y unas cualidades poéticas, que quizás hoy tendrían una valoración más justa, premiándole sin duda con nuestra admiración y orgullo de alsasuarras.

(1927)

MOTRIKU'TIK AUSTRALIA'RA

- 1/ Milla urte ta bederatzireun
ogei ta zazpigarrena,
Kristo zerutik jetxi zanetik
orain pasatzen gaudena;
Australia'ra sartu ezkeru
au kontzaten det aurrena,
mundu onetan nik ezagutu
dedanik urte txarrena.

- 2/ Pentsamentu bat orain artu det
bertso batzuek jartzeko,
plaza batian kantatziarren
jentiak aditutzeko;
Australia'tik bialtzen ditut
España'n inprentatzeko,
lagun zar bati agintzen diot
nire errian saltzeko.

3/ Ortik onera pasatu ditut
lur ta itxaso luziak,
prantzes barkuak ekarri nindun
irugarrengo klasian;
gutxi jan eta padezituaz
egarri eta gosiak,
nunbait merezi izango nitun
kastigu oiek guztiak.

4/ Geroko penak ekartzen ditu
aita ta ama uztiak,
bizi-modua zer dan guk emen
ikasten degu gaztiak;
denpora onekin padezituaz
pasako dira guztiak,
oraindañoko urtiak baiño
erosuago dek aztia.

5/ Ogei ta bat urte artian
aita ta amak azita,
onera zertan etorri giñan
España'n ondo bizita?
Au dek mutillen ibildadia
osasun ona eukita,
jango badegu lana egin bear
goizean goizo jaikita.

6/ Jaun Zerukoak orain eman dit
akordatzeko grazia,
nola nagan aita ta amak
ondo kostata azia;
egun batian pentsatu nuan
Australia ikustia,
neronen faltaz badaukat orain
emen bizitza tristia.

7/ Gu emen nola bizi geraden
esango diet danari:
arrazoi txarrak aditu bear
ta gogor eldu lanari;
kalabazia tomatiakin
dirade gure janari,
eta errekan geldi dagan
ura gañetik edari.

8/ Ondo kostia da emen orain
irabazten dan dirua,
egun luzia lanerako ta
beti eguzki berua;
lendik ez nitzan listua baiño
ia galdu zait burua,
txerriai ere ez diot opa
olako bizi-modua.

- 9/ Nere ideaz etorri nitzan
Australia'ra igesi,
egin nulako ondo bizi ta¹
diru asko irabazi;
ez etortzeko esanagaitik
ez dirate galerazi,
entzun txarreko pizti gaiztuak
ez du besterik merezi.
- 10/ Au ere esan egin bear det
daukadan arte buruan:
zapai batian biok lo eiten degu
ijituaren moduan;
satisfazio guztiz onekin
biok alkarren onduan,
«au baiño mutil oberik ez dek
-pentsatzen dala- munduan».
- 11/ Orain jendiak pentsatzen badu
esana guzurre dala,
etorri eta proba dezala
gusto duanikan bada;
biajeko lain egingo al degu
iñoiz nola edo ala,
ortakoz lana egin bearko
egunez ezer ez dala.

¹ Bearbada, *eingo nulakoan* edo olako zerbait bearko luke emen.

12/ Nungua naizen ez det ukatzen,
ni naiz Gipuzkoa'kua,
da nere lagun maite dedan au
Bizkaia'n bataiatua;
onek esan dit amairu bertso
badiradela naikua,
orain beste bat ipini eta
akabatzera nijua.

13/ Amairu bertso atera ditut
nai dizkienak ikasi,
etorri gabe obe dezute
emengo berri ikusi;
enteratzeko paper au artu,
ez da batere garezti,
nere lagunak salduko ditu
iñok nai badu erosi.

Bertso auek, bigarren bertsoan esaten denez, emen inprentatzeko bialduak dira. Bañan ez dakigu ola egin ote ziran. Bertso-papera ez baitegu iñondik jaso al izan.

Guri, Ondarroa'ko Agustin Zubikarai adiskideak bialdu zizkigun, makinaz idatzi-ta eta bukaeran onako oar au erantsita:

«Bertso oneik Matzuri baserriko etxe-koandreak abestu-ala kopiatuak dira.»

Aurretik, berriz, beste argibide auek ematen ditu:

«1927'garren urtean Motriku'tik Australia'ra joan ziran, desertore, lau mutil: Frantzisko Txurruka, Maixa'kua; Arrieta, Langa-Etxebarri'kua; «Pikua», Pikua base-rikua; eta Zezilio Basurko, Aategi'kua.

Azken onek bialdu zitun betso oneik Australia'tik.

(1932)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Arjentina'tik Españi'raño
nai nuke nik adierazi,
ango jendia onera etorri
ta nola geraden bizi;
or pentsatzen da Amerika onek
baditula milla grazi,
etorri ezkeru dirua erraz
egiten dala irabazi,
orain egiak jartzera nua
nai ditubenak ikasi.

- 2/ Milla beatzireun urte pasata
oi ta amabigarrenian,
tristura aundi bat nabaitutzen det
orain nere barrenian;
zazpi urte dira pasatutxoak,
nua zortzigarrenian,
hotel batian sartu nitzala
andik etor nitzanian,
eta geroztik ementxe nago,
beti ari naiz lanian.

- 3/ Urte batzuek emen igaro
berriz joateko ustian,
ori goguan nik daukadala
egunez eta gabian;
peso batzuek gordetzeatik
gastatzeko zurkerian,
oso zintzotu nai oraingoan,
ez nabil txorakerian,
beste eratan bizitzen nintzan
Españi'n nengoanian.
- 4/ Diru geiago egiteagatik
nik nuan bada pentsatu,
beste egiteko batian ere
biarko nuela sartu;
sei urte dira lendabiziko
patata nula senbratu,
arrezkeroztik galduan nabil,
irabazik ez det artu,
dudarik ez da, zoritxar orrek
neretzat neurririk eztu.
- 5/ Beste asko ere arkitzen dira
emen nere inguruan,
beti lanian ta beti pobre
errukitzeko moduan;
lenago ere ikusten ziran
pobriak beti munduan,
baña sekula ez da gertatu
pasatzen dana orainguan,
zarrenak ere esaten dute
ez daukatela goguan.

6/ Ni baño ere gaizkigo dauden
asko dira Amerika'n,
erdi jantzirik, gosiak eta
dirurik gabe patrikan;
nai arren ezin dute topatu
iñola ere lanikan,
askori esan ta ez sinistatzen
danik orrelakorikan,
neronek ere ez nuben uste
oinbesterañokorikan.

7/ Emen ez dago alaitasunik,
bakarrik dago tristura,
ogei urteko gaztiak ere
daukate zarren itxura;
beti lanian, lanian beti
animalien modura,
dibersiyorik ez da ikusten,
atsegin dena galdu da,
len pasatako egun ederrak
etortzen zaizkit burura.

8/ Eguna joan ta eguna etorri,
danak dijoaz pasatzen,
zer ikusteko jaioak geran
askotan nago oroitzen;
arriturikan jende guztia
emen gerade arkitzen,
egoera aldi triste ontatik
ez bagera ateratzen,
lanikan asko izango degu
modu onetan bizitzen.

- 9/ Gezurrik bada ez det esan nai
baizikan beti egia,
au da txikitan ikási nuen
Jaungoikoaren legia;
oraindik ere oroitutzen naiz,
ez det galdutzen fedia,
beragatikan ez nuke iñola
engañatu nai jendia,
lenago bada modu onetan
etorri izan oi dia.
- 10/ Zorionez iñoiz gaur edo biyar
joaten banaiz Españi'ra,
dudan jartzen det artuko dedan
berriz onerako jira;
gogo aundi bat sentitutzen det
juateko nere alderdira,
emen bezela eta obeki
an ere bizitzen dira,
aspaldi ontan burutaziyo
orrera nago begira.
- 11/ Lengo modurik ez dago emen,
dana dago diferente,
aberats ziran asko ari dira
pobretutzen derrepente;
kontu atera nola biziko
diran orain zenbait jende,
famili-sailla dauken etxiak
lanik asko badaukate,
gosez oraindik ez dira iltzen
bañan gutxi falta dute.

- 12/ Amerika onek izandu ditu
soñu aundi eta famak,
ala esaten dute lendikan
emen egondu diranak;
irabaziya uzten baizuten
orduan emengo lanak,
Europa aldean badira zenbait
aberastuta joanak,
orain ez dago orrelakorik,
alderantziz daude danak.
- 13/ Aberats oiek an ikusita
jende beartsuen griña:
esaten gendun: «Egin gentzake
guk ere juango bagiña».
Ez gendun gauza iritxitzeko
betiko desio fiña,
lan egin eta dirua gordez
egitia alegiña,
utsegin degu bolara ori,
orain daukagu eziña.
- 14/ Kanpoan lana zertako egin
ezer ez baitu baliyo?
Errian ere berdin gabiltza
gauz ori dala mediyo;
estranjeritik datozen gauzak
doblatura dira iyo,
era onetan gijoazela
askok ere esango'yo,
ezin bizi ta alde egitian:
Amerika'ri adiyo.

15/ Amabosgarren bertsoarekin
dijoa azkenekoa,
uste det bada adierazteko
esan detala naikoa;
gelditutzen naiz osatutzeko
nere errin gañerakoa,
osasunaren emantzallee
lagun degula Jainkoa,
adiyo bada, beste bat arte,
euskaldun biyotzekoa.

Bertso auek Tolosa'n jaso nituan, Manuel Urreta zanaren eskutik, moldiztegi-izenik gabeko paper batean.

Bertsoen azpian, urtean eta egillearen izena irakurtzen dira: 1932 - *Bautista Galarrégi*. Bañan ari buruz ezin gentzake ezer ere esan.

Berari ere, irakurleak ikusi duanez, lengo esaera zarrak diona gertatu zaio: Urrutiko intxaurrak urrez, bertara joan ta ezer ez.

ORRA BERTSO BERRIAK
BATEK BERTZEAI JARRAI

AZPILKUETA'KO JOSE MARI MENDIBURU'K
ETA AMAIUR'KO FRANTZISKO UGALDE'K
ELKARRI EMANAK AMERIKETAN

(Doñua: Oxalde ta Etxahun)

1/ - Mila bederatzi eun ta
ogei ta amairu,
orduan sortua da
Jose Mari Mendiburu;
emeretzi urtetan
California'i buru,
intentzio aundiakin
egiteko diru,
ura izaten delakotz
mundu onetan zeru.

2/ - Oi bera pentsaturik,
Frantzisko Ugalde
amazazpi urtetan
sor-lekutik alde;
etzuela balio lanean
aitzea debalde,
Californi aldera
egin nuen galde,
orai ongi etorririk
ementxen gaude.

- 3/ - Entzun zak, adiskide,
nere galdia,
uste dut erraitia
ik orai egia:
Nola iduritu zaik
Californi aldia?
Auxen duk guretako
xarmanta tokia,
dirua egiteko
nun dago obia?
- 4/ - Ona izan daiteke
diru egiteko,
bainan nik ez dut emen
aise laketiko;
egi bat errango dat
jakinik egoteko:
ni enaizela etorri
unera betiko,
iderak baituela
laister joaiteko.
- 5/ - Etzakela pentsatu
segiduan joaitia,
zegorrendako duzu
aundie kaltia;
adin untan deus ezta
emen egoitia,
gizona gazte delaik
diru egitia,
zartzean goxo izain da
alfer egoitia.

6/ - Nik ez dut pentsatzen
alfer egoitiaz,
baizikan emendik
laister joaitiaz;
enaiz ilusiatzen
emengo bizi-az,
asko oroitzen naiz
sor-leku maitiaz,
urriki asko badut
ure an utziaz.

7/ - Etzakela pentsatu
orrelako gauzik,
sorlekuko aferak
alde bat utzik;
ez degu bertzeik pentsatzen
irabaztea baizik,
gu emen ederki
laketuak gautzik,
suerte-az izanez geroz
aberats gaituk goizik.

8/- Aberastu aitzinean
badago besterik,
gu beti egon biar
asko tristerik;
ez degu ezagutzen
sekulan bestarik,
arras penatua
bizi naiz ni seurik,
gaztetan ez degula
pastiko gustorik.

- 9/ - Gazte denboran aunitz
sufritzen duenak,
gero arpatuko tu
zaartzian denak;
protxosak¹ izango dira
gure oraiko lanak,
altxatzen baditugu
irabazi denak,
Californi'ko ardi
maitiak emanak.
- 10/ - Ardi oiengatik
ni mendian nago,
aziendak baño
aunitz makurrago;
oiek launek baituzte,
ni bakarrik nago,
au erran izan dat
nik iri lenago:
zer poza ar nezaken
sor-lekuan banago.
- 11/ - Tronpatzen dat, adiskide,
sor-lekuko bizitzaz,
an gau ta egun lanean
ezin txikiz galtzak,¹
gauz ori aditzian
animoa ar zak,
lan guti eginik
aundiek esperantzak,
legun idukitzeko
eskuko beatzak.

¹ Txikiz: atxikiz. Aurreko bokala galdu, alegia, *ekarri* ta *etorri* bearrean, *karri* ta *torri* esan oi dan bezela.

- 12/ - Beatzak legun eta
tristura biotzak,
arras guti balio'ik
olako bizitzak;
batian sobra bero
ta bertzian otzak,
gau ta egun bakarrik,
oiek gauza latzak,
ola bizitzen dire
otso eta artzak.
- 14/ - Noiz egingo da
egun oi etorri?
tarte ortan pastu bear
guk zenbait tirri;
jendek ez banindute
egingo irri,
laister egin nindeike
abionian jarri,
gusto ederrian
martxatzeko sarri.
- 13/ - Obeto bizi gaituk
otso ta artzak baño,
trantze ortan ez gaituk
aurkitu oraiño;
aberasten bagaituk
ongi egundaño,
sor-leku maitea;
an izain duk oño,
artu kotxe bat eta
joain gaituk araño.

- 15/ - Azken konsejua
seriyoa baita,
adi zak, adiskide,
orai nik erranta:
Zer egin bear dezu
segiduan joanta?
Falta dezu txapela,
baita ere korbata,
amerikanoaindako
ori ez da planta.
- 16/ - Zure konseju ori
ez dut sinetsiko,
sor-leku maitiaz
ni ez naiz antziko;
ez naiz unera etorri
denbora luzeko,
sor-lekuan laister
naute ikusiko
korbatik gabentanik
igual naiz biziko.
- 17/ - Orra amasei bertso
batek bertzeai emanak,
guziak despeditzen tu
amazazpigarrenak;
batek eta bertzeak
izan tugu lanak,
zuzen esplikatzeke
alegrantzi ta penak,
aberasten garenian
antziko tuk denak.

Bertso auek Arizkun'en bildu nituan, bertako Jon Mendikoa adiskidearen esku-tik. Eskuz idatzitako orri bat eman zidan. Bañan amaseigarren bertsoa falta zuan.

Liburu au prestatzerakoan, bertso auek moldiztegirako ongi idatzi nituan jakitea-
rren, Elizondo'ko Mariano Izeta adiskidea-
rengana joan nintzan arratsalde batez, Baztan'go euskeraren berezitasunak arek argituko zizkidalakoan. Bai bear ziran adierazpen guztiak eman ere.

Bañan izenburuan bertso-jartzalleen izan-abizenak irakurri zituanean, onela esan zidan:

– Franzisko Ugalde orren anai bat, To-
mas, emen bertan, Antxitone'ko trinketea-
duzu.

Ara joan, galdetu ta onela esan zidaten:

– Frantzisko, Arizkun'en bizi da, Ugal-
denea etxean, Errazu'ko bidea artu ta be-
reala, eskuitara.

Joan da antxe arkitu nuan Frantzisko Ugalde ori.

Bertsoak irakurri zituan, an da emen bear ziran zuzenketak eta oarrak egin, eta falta zan amaseigarren bertsoa esan ere bai.

Azpilkueta'ko Jose Mari Mendiburu'k Ameriketara jarraitzen omen du.

Bertso auek zergatik eta nola jarriak di-

ran galdetu genionean, onela erantzun zingun:

– Gau batez asi ginen ola: bear gintuela bertsoak paratu ango bizimoduaren gainean. Ta gure bertsoak nagusiaren alabak pastu zituen makinean eskribiturik. Bañan ango nagusiari gauza bat etzitzaion gustatu. Ango euskara pixka bat diferenteagoa baita. Batean paratzen ginuen «altxatzen baditugu irabazi denak». Ta nagusiak pagatzen badazku erran nai du orrek ango euskaraz. Erran zaukun:

– Zer uste duzue? Beldur zarete ez altxatzeko sosik?

Ta esplikatu ginion zer erran nai ginuen: *Altxatu guretzat gorde zela...*

«BERTSOAK JARTZEN NOIA...»

Urrengo lerro ta bertso auek Basarrik argitaratu zituan, *Aranzazu* illerokoan, 1962'eko martxoan:

«Oraindik oraintsu karta bat artu degu Bilbao'tik.

Ipar-Amerika'n, Nevada aldean, artzai ibilitako batena da karta. Ikusten danez, orain Bizkaia'n bizi da.

Ba omen zuten, an ibili ziran denboran, Juan Zarakondegi izeneko mutiko bat. Bizkaitarra ura ere. Ogia baño obea omen zan. Bertsolari abilla ta euskararen maitale sutua. Guri Bilbao'tik idazten digunak ez-taki oraindik Amerika'n segitzen duen ala bere lurrera biurtu dan. Ezkongai omen zan, eta Ea ingurukoa ote zaneko erreze-loa du guri idazten digunak. Kartarekin ba-

tera, dalako Juan Zarakondegi onek Nevada'ko salletan moldatu zituen bertso batzuk bialtzen dizkigu.

Bizkaitarra izanik, bizkaieraz jarritako bertsoak dira, legezkoa dan bezela. Danak osorik argitaratzea luzetxo litzake; baña, bertso bezela neurtuta, guri atsegiñen izan zaizkigun batzuk azalduko ditugu emen. Nevada'ko artzai bizkaitar onek badu bertsolari sena; gatza ta piperra badira beregan.

1/ Bertsoak jartzen noia
entretenuaz,
a zer kontuak diran
Amerikan gugaz.
Gomutatzen gera len
pasatutakuaz...
Erdi tonto urteak
emen badijuaz.

2/ Batzuek ardietan,
besteak or miñan,
Amerikak izena
ona du España'n.
Kaskabelen soñua
sarri emen ezkiñan,
ez gera kabalduko
len zoro bagiñan.

- 3/ Bizi onek badauka
gazte denbora antza,
legoi eta katuak
eiten dabe dantza.
Koioteak gabero
beti dabe arrantza,
Euskalerritik ona
badago mudantza.
- 4/ Basauntzak or saltoka
erreka ezkiñetan,
zer bailiak doguzen
pesta egunetan.
Azkonarrak purrustaz
zulo guztietan,
beste zaratik ezta
emen auzuetan.
- 5/ Trumoi eta oñeztuz
txispak eta garrak,
elur eta aizeak
baditu indarrak.
Koiote antsi onek
balitzaz dolarrak,
aberatsak giñake
amerikatarrak.

6/ Zerbait egitekotan
badegu adiña,
orain saia bearko
emen alegiña.
Amerika kaskoan
sarri aize fiña,
ez gendun ezer galtzen
etorri ezpagaña.

Era ortantxe, ogeitairu ahapalditan
ematen digu ango bizimoduaren berri.
Batzuk egoikixeago tajutuak ditu besteak
baño. Dana dala, guri atsegin izan zaigu
bertsolari bizkaitar onen gauzak adierazte-
ko modua...

Ikus orain bere jardunaldiari nolako az-
kena ematen dion:

Egiten ezpanabe
arbolan esegi,
urte bat edo bian
emen nai det segi.
Bat guzurra badiñot,
iru dira egi,
ixiltzera dijoa
Juan Zarakondegi.

(1965)

BERTSO BERRIAK
IPAR AMERIKAN DAUDEN
URBIA'KO ARTZAIK JARRIAK

1/ Laguntza eskatzen diogu
Arantzazu'ko Ama maiteari,
amaikatxo mesede
egiten digu guri;
gure izate guztiak
zor diogu berari,
orregatik esaten diogu
ainbat agurmari.

2/ Amerikan gabiltza
biotzeko miñez,
zurekin aaztu gabe
gau eta egunez;
«Ama, urruti zaude»
sarritan esanez,
ta noiz ikusiko zaitugun
berriro, jakin ez.

3/ Emen sarri askotan
arrisku-bidean,
pizti txarrak sartzen zaigu
gure artaldean;
Zu or zaude gure zai
Aloña egalean,
gorde gaitzatu, Amatxo,
zure magalean.

4/ Piztirik txarrenak artzak
eta koioteak,
gauetan ezin utzi
zabalik ateak,
eta sarritan egiten
diguten kalteak;
tiro batzuek tirata
egin bear pakeak.

5/ Argi ibilli bear
emen dabillanak,
ez ditu lasai edukiko beti
beraren gibelak;
aurrean azaltzen zaizkitzu
pizti zatarrenak,
suge kaskabelak dira
bildurgarrienak.

- 6/ Orlako piztirik ez da
Urbia aldi,
iturri ederrak bai
mendi gaillurrian;
gu berriz emen gabiltza
bildurrez aidian,
suge oiek zintzarria
jotzen dutenian.
- 7/ Egun baten orruntz
biurtzen bagera,
ondo pozik zuregana
etorriko gera,
zure aurrean umil
belaunikatzera,
ta gure biotz gaxoak
ondo sendatzera.
- 8/ Iru euskaldun gaude gu
elkarren onduan,
beti kantari gabiltz
txorien moduan,
gure izkuntza degularik
biotzen barruan,
ta esanaz: «Orlakorik
etzegok munduan».

- 9/ Gu irurok nortzuk geran
nai badezu jakin,
garbi jarriko dizkizuet
gure izenakin:
Joxe Migel Zeraindarra
Araoztarrakin,
irugarrena berriz
Urbia'ko Martin.
- 10/ Aurki dijoa Martin,
ori dijoa aurrena,
au izan degu irutan
mutil bizkorrena;
Urbi'ko Zelanditaren
semerik gazteena,
ta emen zegoanikan
artzai jatorrena.
- 11/ Aita Gastesi ta Agirretxe,
Lasa ta Garmendia,
altzatu nai genduke
oien lagundia;
oiek berpizten dute
ildako jendia,
gure agurrik beroenak
zuentzako dia.

12/ Iñork galdetzen badu
gu irurogaitikan,
ez dio ajolarik
esanagaitikan.
Urruti xamar gabiltz
Euskal-Erritikan,
Orengon'go Estaduan,
Ipar Amerikan.

Bertso auek *Aranzazu* aldizkarian agertu ziran, 1965 urteko Maiatzan, argibide onekin:

«Orain dala bospasei urte joan ziran Ipar-Ameriketara Urbiako bi artzai eta beste bat araoztarra. Irurak arkitzen dira U.S.A.'n, Oregon'go Estaduan. Andik bialdu dizkigute bertso berri auek. Ikusten denez, Arantzazuko Ama Birjiñaz ez dira aaztu. Eta Euskalerriaz ere ez, noski. An egiten duten bizimodua, ango pizti eta sugetzar bildurgarriak, dena kontatzen digute ederki baiño ederkiago. Arantzazuko Amak bedeinka eta onik atera ditzala arrisku daretatik».

AMERIKETAKO ARTZAI EI
ERANTZUNA

- 1/ Artzai mutillak artu nai ditut
nik gaur nere besuan,
zorionikan beroenak
eman zenduten pausuan;
or zabiltzate orain ardi zai
mendian edo basuan,
euskaldun jatorra ezagun baita
Ameriketa osuan.
- 2/ Garbiro asko aitortzen dute,
ez dijoazte aaztera,
leen joan ziran toki ontara
biur nai dute osteria;
nai dezutenean etorri, bai,
Euskalerra zabalera,
gure Jainkoak nai izaten badu
emen ikusiko gera.

- 3/ Nunbait pakerik ezin billatu,
ziran diruen egarri,
itxasoz beste aldera joan arte
egondu ziranak larri;
saia zaitezte zintzoki eta
diru mordoxka ekarri,
ia poz pixka bat ematen zaien
emengo neska zarrairi.
- 4/ Gazte denboran nunbait etzuten
estimaziorik izandu,
sasoi ortan doan mutillak
ori ondo ezagun du;
orain gertatuko zaizuena da
ondotik ere ezin kendu,
mundu ontan zer maitatzen duten
or garbiro nabarmendu.
- 5/ Izango dute nork begiratu
eta zeïnek itzegiña,
ez badezute promesaren bat
praille joateko egiña;
ori're gerta litekena da,
ez degu gauza eziña,
ta nun obeto kendu gaiñera
munduko buruko miña?

6/ Zuek etortzean zer gertatuko
nago buruan pasata:
batak e naiko zaituzte eta
besteak berriz falta;
asko modutan entzuten bada
dirua dagon zarata,
buruko illeak ateratzeko
bera naikorako da-ta.

7/ Ain bizimodu ezberdiña du
emendik joandakoak,
ala esaten dute beiñepein
andik etorritakoak;
lendabizitik sufrimentu utsen
dabiltza gizarajoak,
burutik kendu ezinda berriz
emengo ardo-tragoak.

8/ Txantxetakoa ez baita izango
an daramaten bizitza,
noizipein trago batzuk egiñaz
gu beste moduz gabiltza;
ago betean esan nai nuke
bururatu zaidan itza:
emen e zerbait egin litzake
ala ibilliko balitza.

- 9/ Pasa bearrek omen dituzte
egun gogor eta latzak,
amaren besoetan bezela
ezin igaro bakoitzak;
udan eguzkik erre bear ta
neguan dardaraz otzak,
animosoak ezin egondu
artzai mutillen biotzak.
- 10/ Pizti gaiztoen bildurrez dabiltz,
nunbait pakerik ez dago,
olan gertatzen zala diote
orain baiño lenago;
ai, Jose Migel eta Martin,
berdintsu berriz Bartolo,
Urbi'ko pago azpia bear
loa lasai egiteko!
- 11/ Artzai mutillak, orra nun doan
nere bertsozko deia,
zuek bezela joandakoak
geiago ere badia;
nere biotzak sentitzen duna
au orra ezin bidalia,
besarkadatxo bana danairi
ain urruti ez balia.

12/ Nik agurtu nai zaituztet
Euskalerra onetatik,
eta zuek alegindu gogor
itxasoz beste aldetik,
euskaldun jator bezela agertuz
zabiltzaten tokian betik,
ta Arantzazuko Amak zainduko
Aloñaren egaletik.

Julian Martitegi

Bertso auek ere *Arantzazu* aldizkarian argitaratu ziran, 1965'eko abenduan.

Izenburuak esaten duanez, aurreko sail-lari Julian Martitegi onek ematen dion erantzuna dira.

Bertsoen aurretik onako argibide au irakurtzen da *Arantzazu*'n:

«Orain dala illabete gutxi, gure errebis-tan azaldu ziran bertso berri eder batzuk, euskaldun artzaiak Ameriketatik bidaliak. Aiei erantzutera dator gaur Julian Martitegi jaun bertsolaria. Naiz-ta Bizkai'ko Mañaria'n bizi, bertokoa degu, Arantzazuko auzo onetan azi baizan, eta emendik eraman zuen bertsoetarako duen griña».

(1975)
BERTSO BERRIYAK
AZKUE ETA AGIRRE'TAR IÑAKIK
JARRIYAK

Osabak:

Nere illoba maitagarriya,
zuri begira naukazu,
zure aurpegi alai ederra
goibeltzen ari baizaizu;
zer gertatzen dan ezin antzeman,
kezketan jarritzen nazu,
arren mesedez eskatzen dizut,
zer dezun esan zaidazu.

Illobak:

Nere osaba, orretaraño
kezkaz jarri al zaitut nik?
Ez nuan uste orretaraño
begiratzen zenidanik;
nere biyotza naigabetan dô,
ez dauka alaitasunik,
bañan ixilik egon naio det
zuri eman gabe penik.

Osabak:

Etorri ziñan egunetikan
asi ziñan zu goibeltzen,
ainbat denboran egun alai bat
zuretzat ez da argitzen;
alegin pranko egin det baña
etzaitu ezerk alaitzen,
penik aundina emango nazu
ez badirazu aitortzen.

Illobak:

Urtebete da aldegin nula
nere amaren ondotik,
irten zitzaizkan negar-malkuak
ikusten ditut oraindik;
itz samur auek esan zizkidan
laztan gozuak emanik:
«Ai, nere seme, orretarako
azi izan al zaitut nik?»

Zurekin neukan bizi-poz dana,
ai, nere seme maitia,
ondo dakizu, amak zuretzat
badauka borondatia.
Orain nolatan asmatu dezu
ain urrutira jutia?
Zure amatxo maite badezu
asmoz aldatu zaitia.

Maitetasunik beroenian
ziñuten egin da azi,
euneko ogirik etzaizu palta
naiz kostata irabazi;
orain bakarrik utzitzen nazu
eta bazuaz igesi,
zuregandikan esker oberik
amak ez al du merezi?

Orain da beti txit bearrezko
neretzat zure laguntza,
osasunian beraka nua
ta urtietan goruntza;
alare nitzaz erruki gabe
baldin bazuaz aruntza,
arantz gogorrez jositzen dezu
zure amaren biyotza.

Berriz laztandu nai zaitun ama
arren ez utzi galtzera,
ondo badakit, amarentzako
biyotz gogorra etzera;
Jaunak nai beza aruntz jun arren
etorritzia ostera,
goguan izan: penak ilko nau
nitzaz aztutzen bazera».

Agurtutzeko ainbeste almen
neregan ez nualarik,
buru makurka aldegin nuan
nere amaren ondotik;
gau eta egun nere biyotza
naigabetan da geroztik,
nere osaba, orra aitortu
zer lanak dabilzkiten nik.

Iru-lau urte igarotzeko
ekarri nuen asmua,
bañan denbora jun ta ondoren
alperrikan da damua;
millaka bider laztandu nai det
nere amatxo on ua,
eta berandu izan baño len
ni emendikan banua.

Osabak:

Egin dituzun lanan sariya
sei milla dolar ta erdi,
ordaintzekuak ordaindu eta
gelditu zaizkitzu garbi;
nik ondo dakit, oiek ez dira
zure biyotzan pozgarri,
bañan txit onak dira ta eraman
Kanada'ko oroigarri.

Zu gaur erretzen zaituzten su oik,
ai, nik ez dauzkat aztuta,
oiengatikan igaro ditut
amaika ordu estu ta;
bakardade ta oroitze askok
iya burutik nastuta,
len sosik gabe txit ondo nitzan,
gaur gaizki aberastuta.

Zure ama da nere arreba,
nik ere maite det benaz,
artaz aztuta mundu onetan
iñoiz ibiliya ez naz;
zuaz lenbailen laztandutzer
egon ez dediyen penaz,
agur, illoba, ta ondo bizi,
ni emen gelditutzen naz.

Bertso auek eskuz idatzita artu nituan,
eskutitz baten barruan. Eskutitzak onela
zion:

«Maniwaki 23-I-75

Adiskide jaunak:

Lenengoz eskerrak ematen dizkitzutet
nitzaz oroitu eta biraldu dirazuten bertso-
sortagatik.¹

¹ Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa Probintzialak urtero
bialtzen dio bertso-liburu bana, atzerrian bizi diran gi-
puzkoar mordo bati.

Orain mesede bat eskatzen dizutet. Emen dijuazen bertso auek, nere lagun batek aginduta moldatu ditut. Zer gertatu zaion, bertso auetan garbi ageri da: illoba onera ekarri eta urte bete ingurura, bere kezketatik ateratziagatik, bere amarengana jun zaio. Orain nai nukena da bertso auek nunbait argitaratzea, al baldin bada beintzat.

Gusto aundiz Basarriri biralduko nizkiyon, berak radiyotik kantatziagatik; bañan ez det beraren direziorik eta ezin biraldu. Baldin zuen bitartez iritxiko balitz Basarri bertso auek radiyotik kantatzera, orduantxen bai poza artuko nukela.

Lan auek egiteko zerbait ordaindu bear bada, urrenguan esango nazute eta laister ordainduko dizutet.

Bitartian, agur denai eta zuena arte. Iñaki.

I. Azkue / E.B. Eddy / Comp. 219, Maniwaki / P.O. Canada».

Makinaz idatzi eta *Goiz-Argi*'ra bialdu genituan. Bai aldizkari ortan argitaratu ere, 1975'ko iraillaren 3'an.

Basarriri ere bialdu genizkiola uste det. Bañan kantatu zituan ezin esango degu, oso radio-entzule kaxkarrak gera-ta.

«HABANA'RA JOAN NINTZAN...»

1/ Habana'ra joan nintzan
arditikan gabe,
andik etorri nintzan, *maitea*,
bost milloiren jabe.
Txin, txin, txin, txin,
diruaren otsa,
aretxek ematen dit, maitea,
biotzean poza.

2/ Begiak zorrotzak ta
memoria argi,
ezer ez dan lekuan, *maitea*,
atzaparrak garbi.
Txin, txin...

3/ Amerikatik bueltan
giñaden etorri,
eta naiko dirua, *maitea*,
genduan ekarri.
Txin, txin...

4/ Orain gastatze'itugu
ango urre xarrak,
dantzatu ziralako, *maitea*,
gure atzaparrak.
Txin, txin...

5/ Gu irurok gerade
arratoi txuriak,
Amerikako berri, *maitea*,
ondo ikasiak.
Txin, txin...

6/ Orain etorri gera
andikan onera,
kaballero-papera, *maitea*,
emen egitera.
Txin, txin...

Bertso auek orrela jaso genizkion Errenteri'ko Monika Galarraga zanari. Juanito Zabaleta bertsolariaren alarguna, bera.

Bearbada, bertso geiagorekin argitaratuta egongo da kanta au nunbait ere. Bañan une ontan ez gera oroitzen. Alegia, oker egon gindezke, bañan ez degu uste

kanta onen oinbeste bertso iñori entzun edo iñun ikasi degunik. Orregatik, eta gaiari begiratuta, liburu ontan sartzen ditugu.

Kanta au oso ezaguna da Euskalerrian, oso bertso gutxi kantatzen badira ere.

Oi danez, baten aotik besteren aora aldatu egiten da, ordea. Adibidez, beste onela esaten dute batzuek: 1/1 Amerikara joan nintzan; Amerikara joan giñan; 1/2: xentimorik gabe; txanponikan gabe; 1/3: andik etorri giñan; antxen egin giñaden; antxe egin gerade; 1/7: arek ematen digu, maitea; 2/1: Begi zorrotza eta; ezer ez dan tokian.

Azkue'k Zarautz'ko Benantzio Amezti'ri 5, 6, 1 eta 2'garren bertsoak jaso zizkion, orden ortan eta aitatzerik merezi duan al-daketarik gabe. Bañan etzituan argitaratu.

Kantu kanta kantore liburuan ere (Baiona 1967), badator kanta au, bañan beste onela:

Nevadarat joan nintzan
dirurikan gabe,
handik itzultzekotan, maitia,
bortz miliunen jabe.

Urteak joan ziren
on ta tzar nahaste,
gure fortuna heiekin eta
denak berritz haste!

Begia zorrotz eta
memoria argi,
ez den ez den tokian, maitea,
aztaparra garbi.

Moltsa arin dut, bainan,
aberats gogua!
Nere fortuna zare, maitia,
nere sosegua!

Eta Errepika:

Ai, ai, ai, ai, ai!
Ametsaren lana!
Ait'amen erranetarik barna
ibili bagina!

Iru doñu ezartzen ditugu. Lenengoa,
guk ikasi genduan bezela; eta, uste degu-
nez, berdintsu kantatzen da kanta au Eus-
kalerri guztian edo geienez.

Bigarrena, Azkue'ren esku-idatzietatik artua, argitara gabe utzi bazuan ere. Berak, Zarautz'ko Benantzio Amezti'ri jaso zion.

Irugarrena, berriz, beste aldekoa degu; Emile Larre adiskideak nunbait ere magnetonoz jaso eta guk kōpiatua.

The musical score is written in 6/8 time and consists of five staves. The first staff begins with a treble clef and a 6/8 time signature. The notation includes eighth notes, quarter notes, and half notes, with several instances of double-fingerings (marked with a '2' above a slur) and slurs. The second staff continues the melody with similar rhythmic patterns. The third staff features a series of eighth notes, some with double-fingerings. The fourth staff shows a mix of eighth and quarter notes. The fifth staff concludes the piece with a final half note and a slur.



* * *







* * *






ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya. (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*. (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).

34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echegaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz Bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zabala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).

85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain, A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
(*Aitua*).
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak. (*Aitua*).
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako
itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsola-
riak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapi-rain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaiok bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.

141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA